

ASTELEHENEOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DI OGUNA



2011-10-03
ASTELEHENA
336. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Aspaldiko uzta onena batu dute

Debagoieneko txakolingileak pozik | 4



Mahatsa batzen. | ARRITXU BARRUSO.

Lehen Bertso Eskolako sortzaileak omendu ditu aurten Nobenaixuek | 15



Joko gutxi eta 2-0 Mondraren eta Bergararen arteko derbian | 24



Organo Erromantikoaren zikloan, Orfeoia eta Aitor Olea eskutik | 28

Sagardoaren indarraz goizaldera arte

Herri Eguna goizeko ordu txikiak arte luzatu da aurten ere; gaur mozorroek hartuko diote testigua baserritar jantziari. | 12

Oñatiko plazan sagardo tragoa hartzeko zain, zapatuan.



JULIO CALLEJA

Bilduma onenaren saria eman diote Ivan Vazi

Aretxabaletarra Arabako moda astean saritu dute | 28



Ivan Vazek diseinuetako bat | IVAN VAZ

Euskarari lehentasuna emango dion araudia onartu du Eskoriatzako udalbatzak

| 11

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ZURE LAGUN ONENARENTZAKO !



Txartela, beti aldean

► Zoaz 23. orrialdera

Gorputz Hezkuntzaren aldeko taldea ez dago bakarrik

- ▶ Ikerketa batek dioenez, ikastetxeek uste dute Gorputz Hezkuntzak ordu gehiago behar dituela
- ▶ SOHAT taldeak bere aldarrikapenak plazaratu ditu berriz: nagusia, ikasgaiarendako bi ordu bermatzea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Badago ikasgai bat ikastetxeetako zuzendariak, ikasleek zein gurasoek bereziki faltan igartzen dutena, eta orain bereziki estimatzen dutena: Gorputz Hezkuntza. 2007an Hezkuntza Sailak curriculum berria onartu zuenetik, Gorputz Hezkuntzak ordu gutxiago ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe askotan.

Hezkuntza Sailaren 2007ko dekretuak ikasgai bakoitzarendako gutxieneko ordu kopuru bat ezartzen zuen, eta Gorputz Hezkuntza, asteko bi ordu eta erdi izatetik, ordu eta erdira pasatu zen. Horri erantzuteko sortu zen Soin Hezkuntzaren Aldeko Taldea (SOHAT), eta ikasturtea hasi berria dela aprobetxatu nahi izan dute berriz euren eskaera gogorarazteko eta irailean egin duten Hezkuntza Curriculuma eta Gorputz Hezkuntzari buruzko ikerlana delakoaren emaitzak aurkezteko. Bertan, EAEko 235 ikastetxeko 1.276 laguni –zuzendariak, irakasleak, gurasoak eta DBH 3 eta 4 eta Batxilergoko 1. mailetako

ikasleak– egindako inkesta baten emaitzak batzen dira, eta horien arabera, Gorputz Hezkuntza da etorkizunera begira ikastetxeek

gehien indartu beharko luketen hirugarren arloa, ikasgai hori oso ondo baloratzen dute, eta inkestatuen gehiengoa SOHATen proposamenen alde agertu da.

SOHATek Debagoieneko kideak ere baditu, eta ikerketa babestu dutenen artean Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatea dago. Beste sustatzaile eta babesle batzuk hauek izan dira: COLCAFID, Decathlon, Gasteizko eta Donostiako irakasle eskole-tako kideak, Gasteizko Jarduera Fisiko eta Kiroletako Zientzien Fakultatea (lehengo IVEF), Kiro-laren Aldeko Iritzi Taldea eta Xibako teknikariak.

Irakasle gutxiegi

Nora Olabide bergararra Gorputz Hezkuntza irakaslea da Elgetan, eta SOHATeko kide da. Berak azaltzen du eurek ikusten duten arazoa: "Saioak murriztu egiten dira ikasleendako, eta lanpostu gutxiago daude horren ondorioz: joan den ikasturtetik hona, 36 lanpostu galdu dira. Baina gure kezka nagusia da Gorputz Hez-

DATUAK

1,5
ORDU

Hezkuntza dekretu berriaz geroztik, Gorputz Hezkuntzak astero ordu eta erdi bakarrik du ziurtatuta ikasgai gisa.

490
ORDU EAE-N

DBHn, gutxieneko 490 ordu ditu Gorputz Hezkuntzak; Frantzian, 1.080, eta Alemanian, 677.



Ume batzuk eskolan, Gizarte Hezkuntza saio baten. | NORA OLABIDE

NORA OLABIDE | GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

"Gorputz Hezkuntzarendako bi ordu eskatzen ditugu, besteei ezer kendu barik"

Elgetako Herri Eskolan Gorputz Hezkuntza ematen du Nora Olabidek. Bere esanetan, Hezkuntza Dekretuak ahalbidetzen du Gorputz Hezkuntzari denbora handiagoa ematea.

Aspalditik dator zuen borroka...

Bai. 2007an Hezkuntza Dekretu berria egin eta onartu zutenean hasi ginen. Gure aldarrikapena orduko berbera da: Gorputz Hezkuntzarendako gutxieneko orduetegi bat eskatzen dugu, eta gogorarazten dugu ez gaudela bakarrik; gure atzean badago babes bat. Gainera, gure proposamenean ez diogu beste inongo ikasgairi ordurik kentzen; guztien ordu kopurua errespetatzen dugu. Ez ditugu eskatzen ere lehengo bi ordu eta erdiak, bi ordu baizik. Gorputz Hezkuntzak bere tokia izan behar duela deritzogu.

Zelan gorde daiteke ikasgai guztien gutxieneko ordu kopurua, eta Gorputz Hezkuntzarena ere handitu?

Ikastetxeen orduetegi malguak, badaude markatu bako ordu batzuk, gutxienekoetatik kanpo gelditzen direnak. Guk aurkeztutako ikerlanean agertzen da inkestatuek emandako iritzia, beste ikasgai batzuen denbora txikitzekoa, baina SOHATen proposamenak ez du halakorik eskatzen.

Inkestatuek oso ondo baloratu dute Gorputz Hezkuntza. Adibidez, ikastetxeen lehentasunen artean hirugarren agertzen da...

Bai. Guk ere harriduraz hartu genituen erantzun horiek. Balorazio oso ona egiten dute gaitasun kurrikularrean eta garapen pertsonalean. Adituek hitz egiten dutenean oso argi daukate, eta geuk ere bai, baina galdeketa-rekin ikusten da ez garela bakarrak.



Nora Olabide. | LARRAITZ ZEBERIO

Nire inpresioa da, 2007a ezkerreko eskoletan txikitzen joan denez Gorputz Hezkuntza, argi gelditu dela bere falta eta jendeak igarri egin duela.

Hezkuntza Sailak zer dio, ipini da SOHATekin harremanetan?

Hasieran, dekretu berria onartu zenean, pare bat aldiz batzartu ginen, baina horren ondoren Sailak ez du interes berezirik agertu, eta gure ikerlana aurkeztu ondoren ere ez da kontakturik egon. Dena dela, eurekin egoteko asmoa dugu.

Badakigu momentuan zelan dagoen kontua, baina lanean jarraitzeko asmoa dugu, benetan sinisten dugulako Gorputz Hezkuntzak bere lekua izan behar duela, eta gutxieneko bi ordu horiek lortzeko gure lanak ondorio batzuk izan ditzan.

Carrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82
Faxa: 943 10 69 66
scarrasc_1@infonegocio.com

**ESKAINZA
BEREZIAK**
FINANTZAKETA
ZURE NEURRIRA





SOHATEko kideek eta babesleek Donostian aurkeztu zuten egin berri duten ikerketa. | SOHAT

kuntzari emandako orduak gutxi-egi direla ikasleei egin beharreko ekarpena egiteko, eta ez dutela bermatzen behar den moduko lan bat egitea".

Hori dena 2007ko Hezkuntza Dekretuaren ondorioa da. Bertan, Hezkuntza Sailak ikasgaietarako gutxieneko ordu batzuetara behar-tzen du, baina ikastetxe bakoitzari malgutasuna ematen dio berak gehieneko orduak ezarri

ditzan. Olabidek dioenez, "horixe da Sailak ematen duen aitzakia edo arrazoia. Elgetan, hori erabiltzeko aukera dugu: ni langile finkoa naizelako eta lanaldi osoan nagoelako, eta ikasle kopurua ere egokia delako; bestalde, zuzendaritza eta gurasoak ados daudela, eta horregatik, Elgetan bi ordu eta erdi ematen ditugu. Arzoa da eskoletara bidaltzen diren espezialistak banatzeko orduan,

ikasturte hasieran, Hezkuntzak gutxieneko orduen arabera egiten duela kalkulua, eta ikastetxe askotan lanpostu bat, lanpostu erdi... geratu dira. Hortaz, eskola horiek autonomia edo malgutasuna badaukate, baina giza-baliabiderik ez dute horri eusteko".

Gorputz Hezkuntza areagotzearen alde dauden gehienek (%57,6) uste dute Sailak dekretu bidez arautu beharko litzukeela gutxieneko orduak. Aukera horren alde daude bereziki zuzendariak, "izan ere, bestela eskuak lotuta dituzte ordutegia beste modu batera antolatzeke", dio Nora Olabidek.

"Ezinbestekoa"

Oraingo ikerlana Siadeco Ikerketa Elkarteari eskatu zion SOHATEk. Besteak beste, honako emaitzak ditu: zuzendarien %69ek eta ira-

kasleen %68ek esan dute Gorputz Hezkuntza ahuldu egin dela beste irakasgaiekiko, eta hari murriztu dizkiotela ordu gehien. Horrez gain, ikastetxe bakoitzaren egoeratik abiatuta, aurrera begira indartu beharreko 3. lehentasunezko arlotzat dute inkestatutakoen %32,9ek, atzerriko hizkuntzen (%45,4) eta euskararen (%44,8) atzetik.

SOHATen proposamena da Gorputz Hezkuntzak astean gutxienez bi ordu izan beharko litzukeela curriculumeko helburuak lortzeko. Horrekin ados agertu dira inkestatuak, eta proposameneko planteamendu guztiak ondo baloratu dituzte: gehien baloratu dutena (10 puntutik 9,10) izan da Gorputz Hezkuntzak "ezinbesteko alorra" izan behar duela DBH sistemaren barruan, eta bigarrena, oinarritzko curriculumak

markatzen dituen gaitasunak lortzeko "irakats alor garrantzitsua" dela Gorputz Hezkuntza (8,56 puntu). Horrez gain, inkestatuen %74ek egokitzat jotzen du SOHATen proposamena LHrako, eta %58ek, DBHrako.

Beste emaitza bat hau da: LHn Gorputz Hezkuntzak 146,82 minutu izan ditzan eskatzen dute inkestatuek; DBHn, 144,41; eta Batxilergoan, 135,96; ia bi ordu eta erdi, hortaz. Kopuru horiek ikasleek, zuzendariak, irakasleek eta gurasoek emandako kopuruen batez bestekoak dira.

Gorputz Hezkuntzaren garrantziaz galdetuta, ikusten da oso ondo baloratzen dutela: gaitasun baloratuenak dira norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (10etik 8,64 puntu) eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (7,60).

Ingelesa, alemana, frantsesa...



hizkuntzak



Adin guztiak
Maila guztiak

%80ek gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak

Aktiba zaituz
MONDRAGON LINGUAekin

Eskola malguenak aktiba itzazu, ordutegien, helburuen, trebetasunen... arabera.

Eskola eraginkorrenak aktiba itzazu, tutore personalizatuarekin eta banan-banako planifikazioarekin.

Berrikuntza aktiba ezazu, teknologia aurreratuenarekin, baita norberaren ordenagailutik eroso egonda ere.

Zure ikasketa aktiba ezazu, gazteenentzako bideojoko didaktikoekin.



Urriaren 7a baino lehen matrikulatzen diren ikasle helduek e-book edo iPad2 zoragarria jasoko dute opari.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4 Tel. 943 71 20 55

OÑATI
Motxon kalea Tel. 943 71 60 00

Debagoieneko txakolingileak martxan; iritsi da uzta berria batzeko momentua

- Gaitza izan duen arren, aspaldiko uztarik onena izan dela diote
- Otxia, Kataide eta Upain dira Debagoieneko hiru txakolin ekoizleak

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasateko Bedoña auzoko Arta-Zubiaga baserrian lanpetuta ibili ziren egubakoitz arratsaldean. Baserri ondoko mahastian topatu genuen familia osoa: amona, seme-alabak, osaba-izebak, lehengusuak... Nagusi eta gazte eskularruak jantzi eta mahatsa biltzen ari ziren eguzkipean eta hego-haize gozoak lagunduta. Felix Etxagibelek azaldu zigun egun polita izaten dela: "Urte guztian zehar egoten gara egun hauek iristeko eta ospatzeko zain. Familia osoa elkartzen gara, 15-20 lagun inguru, eta beti dago bazkari edo afariren bat mahats-bilketaren inguruan. Gaur bezalako eguraldiarekin gainera, izugarri gustura aritzen gara".

Etxagibelena Getariako Txakolina izendapeneko mahastirik garaiena da, itsasotik urrutien dagoena, eta horrek berezi egiten du Otxia Txakolina: "Mahasti bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu eta geurearena horixe da, mahastirik altuena dela. Ikutu berezia dauka. Gainera, mahatsa modu ekologikoan lantzen ahalegintzen gara. Mahats ona eta sana egitea da gure helburu nagusia".

Etxagibel pozik dago batutako uztarekin "kalitatez eta kantitatez aspaldiko onena" izango dela dio. Duela bi urtera arte txakolina etxean bertan ekoizten zuten arren, egun Getariako upeltegi bati saltzen diote eta hark ekoizten du Arrasateko Otxia Txakolina.



Arta-Zubiaga baserriko mahastian familiako kideak mahatsa batzen egubakoitz arratsaldean. | ARRITXU BARRUSO



Kataideko Javier Arregi mahatsa batzen. | A.B.



Bilketa makinarekin. | A.B.

Iraileko eguraldi onek mesede

Arrasateko Egi-Haundi baserrian ere batu dute dagoeneko mahatsa -urreko asteburuan egin zuten bilketa- eta beraien mahatsa ere Getariako Txakolina izendapenaren barruan dago. 16.000 kilo inguru batu zituzten eta Javier Arregi ere uste du "aspaldiko uzta onena" izan dela. Dena dela, gaitza izan duen mahatsa dela kontatu digu: "Mildium izeneko gaitza izan zuen, eguraldi txarrak eraginda eta sulfatatzen ahalegindu ginen arren oso zaila da gaitz horri aurre

egitea. Dena den, iraileko eguraldi onak konpentsatu egin du gaitzak eragindako okerra". Egi-Haundi baserrian Kataide Txakolina izenarekin komertzializatzen dute txakolina: "Etxean bertan egiten dugu txakolina. Enologo bat daukagu eta haren instrukzioak jarraitzen ditugu".

Arregi pozik dago Kataide Txakolina azken urteetan izaten ari den erantzunarekin eta aurten beste urte batzuetan baino gehiago egingo dutela iragarri du: "Pozik gaude, jendea gure txakolina gustatzen zaiolako. Aurten gainera, litro gehiago egingo ditugu, beraz, prestatu daitezela txakolin zaleak txakolina edateko", diosku barrezka. Santamasetarako txakolin berria aurkeztea aurreikusten dute.

Makinekin ere bai

Oñatin, Zañartu auzoan, Iñaki Gereka ere mahastian topatu genuen lanean egubakoitz goizean. Upaingoa txakolindegian makina bidez jasotzen dute mahatsa eta hamar minuturen buruan mahatsa zuhaitzetik bodegara eramateko ahalmena ematen die horrek. "Rieslin motako mahatsa batzen ari gara orain eta datorren astearen amaieran Hondarribi motakoa batuko dugu. Guztira 60.000 kilo inguru batzea espero dugu".

Duela hiru urte hasi ziren txakolina egiten Upaingoan, baina oraindik ez dira komertzializazio fasean sartu. Victor Leiba enologoak kontatu digu asmoa dela 2012rako Upain txakolin botilak merkatuan egotea. Upainena txakolin oso berezia dela esan digu enologoak: "Ez da ohiko txakolin bat, ia ez dauka gasik eta denboran gehiago irauten du. Bigarren urtean lehenengoan bezain ona egon daiteke. Nazioarteko merkatuan eta Espainian oso erantzun ona izaten ari da. Askok diote txakolina baino gehiago ardo zuri on bat dela gurea; horixe da guk egin nahi duguna, ardo zuri on bat. Baina, txakolina da, Getariako Txakolina izendapenaren barruan gaudelako, mahatsa motagatik eta ekoizteko moduagatik".

Txakolingile gehiago Oñatin

Upainenak ez dira Oñatiko mahasti bakarrik. Murgialdai baserriko Haritz Galdosek kontatu digu baserrian beti egon dela mahatsa landatzeko ohitura, baina 2007tik Getariako Txakolina izendapenaren barruan daude: "Hiru hektarea inguruko mahastia dugu. Duela 5-6 urte landatu genuen eta pasa den urtean jaso genuen lehenengo uzta. Aurtengo uzta oso ona izan da, iraileko eguraldiak asko lagundu duelako. Aurreko asteburuan egin genuen bilketa". Mahatsa Getariako upeltegi bati saltzen diogu, baina etxerako ere egiten dugu. Uztaren zati bati Upaini ematen diogu botilaratzeko". Elazarra, Belaskua eta Ditzosuena baserrietan ere gauza bera egiten dutela kontatu digu Galdosek.

Txakolina kostaldearekin lotu izan da beti, baina, argi dago barrualdean ere txakolina egiten dela eta ona gainera. Hilabete batzuk itxaron beharko ditugu Debagoieneko txakolin berria dastatzeko.

Upeltegia baino askoz gehiago izango den eraikina

Upain txakolindegiko ugazaba Juanito Zelaia 7.500 metro koadroko eraikina egiten ari da Zañartu auzoan. Duela hamar urte hasi zituen lanak eta duela hiru ipini zuen martxan bertan txakolina ekoizteko upeltegia. "Upeltegia bera bukatuta dago eta hiru urte daramatza martxan. Obrarekin zerkusia duten detaile txiki batzuk bukatzea

bestetik ez da falta", esan digu Victor Leiba enologoak. Upeltegiak eraikinaren seien bat bakarrik hartzen du eta Juanito Zelaiak ez digu zehaztasun gehiegi eman nahi izan eraikinaren erabilpenaren gainean: "Nire buruan dago, baina oraindik ez dut publiko egingo. Gauza bat aurreratu dezaket, eta da euskal kulturari eskainitako eraikina izango

dela". Zelaia pozik dago lanak amaitzear daudela ikusita. "Hamar urte daramatzat zain eta nahiko nuke hil aurretik amaituta ikustea", diosku barrezka.

Lanak urte honetan amaitzea aurreikusten dute eta lanak amaitu ostean mahasti gehiago ipiniko dituzte eraikin berriaren inguruan. Modu horretara bost hektareatik zortzi izatera pasatu litzateke Upain Txakolindegia.



Eraikinaren seien bat bakarrik hartzen du upeltegiak. | A.B.



Victor Leiba enlogoa eraikin berriaren aurrean. | A.B.



Goienagusiko ikasleak Arrasate eta Bergarako Udaleko ordezkariekin, Etxaluze eraikinaren kanpoaldean. | JOKIN BEREZIARTUA

Goienagusi elkarteak sortu da, Esperientzia Eskolak egindako bidea luzatzeko asmoz

Lehen urtea egiten duten 50 urtetik gorakoendako eskolak gaur hasiko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Goienagusi elkartearen aurkezpena egin zuten egubakoitzean Arrasateko Etxaluze eraikinean. Esperientzia Eskolari jarraipena emateko sortu da elkarteak, eta Debagoieneko 50 urtetik gorako ikasleek hartuko dute parte. Elkarteak izango dituen batzordeak –euskara, informatika, irteerak eta musika– eta etorkizuneko erronkak azaldu zituzten. Elkarteak hasiberria da eta bide luzea dute egiteke oraindik.

Esandako moduan, aurreko urteetan Esperientzia Eskoletan

izandako ikasleen formazioarekin segitzea da elkartearen helburua. Arrasate eta Bergarako udalen eta Fagor taldearen dirulaguntza jaso dute eta horiei eta elkarteak sortzen lagundu dieten guztiei eskerrak eman zizkieten.

Ikasturtea gaur hasiko da

Elkarteak gain, ikasturte berria ere aurkeztu zuten. Gaur bertan hasiko dira eskolak; izan ere, lehen hiruhilabeterako egutegia zehaztu dute. Besteak beste, literatura, erlijioen historia, musika, historia, bioetika eta argazkila-

ritza izango dituzte ikasgai datozen hiru hilabeteetan. Gainera, irakasle gehienak ezagunak dira ikasleendako. Hitzorduak Arrasaten, Bergaran eta Oñatin izango dira.

Goienagusi elkarteak urriaren 3an abiaraziko duen ikasturtean izena emateko ezinbestekoa da Esperientzia Eskolako titulua izatea. Aurten Arrasaten ez dira eskola horiek egongo. 62 bazkidek osatzen dute egun elkarteak eta horietatik 48 izango dira eskola eta hitzaldietara joango diren ikasleak.

Arantzazun egingo diren ekintzen gida kaleratu dute

Udazkenean egingo diren ekintzak batzen ditu eta Arantzazu ezagutzera ematea da helburua

M.B. | ARRASATE

Arantzazuko erakunde guztiek Santutegian egingo diren ekintzen udazkeneko gida kaleratu dute. Udazkenean egingo diren ekintza kulturalak batzen ditu, ikastaroak eta mendi irteerak, batik bat. Hala nola, mikologia, espeleoabentura, esnekiak nola egin, artzain-txakurrak trebatzea, artzainen produktuekin postreak nola egin... Urri, azaro eta abendu bitartean egingo dira ekintzok eta interesa duten guztiek har dezakete parte.

Urtarrilean Arantzazun lan egiten duten erakunde guztiek elkarrekin prentsaurrekoa egin zuten ekimen berri bat ezagu-

tzera emateko asmoz. Ekimenak bi helburu zituen: lehena, denon artean euren jarduerak guztien programazioa bateratzea hiru hilako esku-orrietan eskaintzeko; bigarrena, urtaro bakoitzaren begiradari eta ñabardura desberdinei erreparatu jendeari Arantzazu ezagutu eta bisitatu dezan gonbita egitea. Hain justu ere, udazkenean arratsaz eta kulturaz gozatzea proposatzen dute.

Agente bakoitzaren jarduerak eta ekintzak egitura bakar horren arabera ordenatu dituzte, beraz. Egitaraua ikusgai dago www.arantzazu.org webgunean.

AP-1 autobideko Bergara iparraldeko sarrera-irteera itxita egongo da egunean hainbat ordutan

AP-1eko zoruan egingo dituzten konponketa lanak direla eta, itxita egongo da gaurtik eguaztenera arte Bergara iparraldeko autobiderako sarrera-irteera, egunean zenbait orduz. Gaur, sarrera itxita egongo da, 15:00etatik 06:00etara eta bihar, berriz, irteera, 21:00etatik 06:00etara. Bietan ala bietan, autobideko irteera Eibartik, Elgoibartik eta Bergara hegoaldetik egingo da. Eguaztenean erabat itxita egongo da sarrera-irteera, 21:00etatik 06:00etara, eta Bergara hegotik, Eibartik eta Elgoibartik sartu-irtengo da.

BADATOR...



Kantari

3. edizioa

Urriaren 8 eta 9an Arrasaten izango gara!

Etorri zuen lagunak animatzera.

IKUSKIZUNAK

URRIA

ARRASATE 8 / 9

Amaia antzokian.

OÑATI 15 / 16

Gaztelekuan.

AZAROA

BERGARA 5 / 6

Zabalotegi aretoan.

ARETXABALETA 12 / 13

Arkupe aretoan.

Arrasate eta Aramaioko partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak
<http://zugaz.com/blog/>

943 25 05 05

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Imanol Esnaola | Gaindegiko idazkaria

"Jardun dezagun batera, eta erronka globalei samurrago erantzungo diegu"

► Sozio-ekonomiari buruz hainbat adituk botatako ideiak plazaratu zituen Imanol Esnaolak Bergaran

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gaindegiko, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiko idazkari Imanol Esnaolak hitzaldia egin zuen eguaztenean Bergaran. Bere esanetan, Euskal Herriarendako errezeta sozio-ekonomikoa "elkarlana, elkarlana eta elkarlana" da.

Zer dela-eta Euskal Herria: erronka sozio-ekonomikoa?

Iaz izen bereko liburua argitaratu genuen. Hainbat arloko 13 pertsona elkarrizketatu genituen eta galdetu genien non gauden eta norantz doan mundua, eta guk norantz joan beharko genukeen. Pertsona horiek ikuspegi desberdinetakoak eta, batzuetan, kontrajarriak dira. Nahi genuen gogoeta hori ahalik eta jende gehienara ailegatzea; Youtube-en ere kanal bat sortu genuen horretarako.

Gure xedea da iritzi horiek erakustea eta horren inguruan gogoeta sortzea. Orain arte inoiz egin gabeko ariketa bat egin nahi genuen: Euskal Herriaz hitz egiten dugunean, azter dezagun behar duena herri izateko, lurralde-

unitate jasagarri eta kohesio-natu bat izateko.

Hori nola laburtu hitzaldi baten?

Helburua ez da debate ideologikoak erreproduzitzea, baizik eta mahai gainean jartzea Euskal Herriaren eraikuntza. Ez dugu esaten zein dabilen zuzen eta zein oker, baizik eta zeintzuk diren erronkak. Horren ondoren ipintzen ditugu ekonomialari batek, soziologo batek, demografo batek... esan dizkiguten iritziak. Horrekin, ideia, helburu, erronka, hutsune... sorta bat egiten dugu, eta norberak etxera eramango du gustatzen zaiona. Ez dugu errezetarik ematen.

Eta Gaindegiaren errezeta zein izango litzateke?

Kohesioa. Hau da: lan egin dezagun elkarrekin; bizi gaitzen elkarrekin; eta, taldean, erronka

"Herri gisa, geure finantza-entitateak izatea oso garrantzitsua da"

globalei, ekonomia eta gizarte alorrean erantzutea samurragoa da. Sakabanaketak urrundu egiten gaitu eragile ekonomikoak batzuk besteengandik. Arazoak konpartitzen badugu ikuspegi konpartituko dugu, eta herri bat izango gara.

Pil-pilean dagoen gai batez galde-tuko dizut: Kutxa Bank.

Nire iritzi pertsonalean, herri bezala bizirik irauteko finantzazio-tresna indartsuak behar ditugu, eta bai politika instituzionalak bai enpresa-ekimenak aurrera ateratzeko, bertako entitate finantzario sendoak behar dira. Zentzu horretan, kutxen bateratzeak alderdi onak baditu. Une honetan herri bezala entitate finantzario propioak izatea, bertan errotutako zuzendaritzarekin, oso-oso garrantzitsua da, gure herriarendako onuragarriak izan litezkeen proiektuei aurre egiteko, edo baita aberastasuna sortzen duten hainbat enpresak etxean topa dezaten finantzazioa atzerrian jarduteko. Aurrerapauso moduan ikusten dut, izan ditzakeen gabeziak zuri gabe.



Imanol Esnaola, eguaztenean Bergaran. | EDU MENDIBIL

Euskal Herriaz 13 ikuspuntu osagarri



LIBURUA

EUSKAL HERRIAK: ERRONKA SOZIO-EKONOMIKOAK

Generoa: Elkarrizketak.

Orri kopurua: 188.

Argitaratzailea: Gaindegia.

Gaindegiak 13 lagun elkarrizketatu zituen iaz – Jon Azua, Michel Etchebest, Ainhoa Etxaide, Anjeles Iztueta, Nekane Jurado, Antxon Lafont, Juan Carlos Longas, Adolfo Muñoz, Paul Nicholson, Mixel Berhokoirigoin, Koldo Saratxaga, Pedro Luis Uriarte, Eduardo Zubiaurre–, eta horren ondorioa da honako liburua. "Arlo askoko pertsonak dira, Euskal Herria ondo ezagutzen dutenak, ikerkuntza ikuspuntutik eta ikuspuntu funtzionaltetik", dio Imanol Esnaolak.



Emakumeak supermerkatu baten erosketak egiten. | LEIRE KORTABARRIA

Urtero 6.800 euro kostatzen da bailaran erosketa egitea

OCU elkarteak supermerkatu, hipermerkatu eta deskontu denden prezioak aztertu ditu

L.K. | BERGARA

Ohiko erosketa-otzara betetzea gehiago edo gutxiago kostatzen da saltokiaren arabera, baina Debagoienera, alde hori ez da oso handia: 800 euro ingurukoa da. Espainiako OCU (Erabiltzaile eta

Kontsumitzaileen Antolakuntza) elkarteak Hego Euskal Herriko eta Espainiako supermerkatu, hipermerkatu eta deskontu-establezimenduetan egindako ikerketaren arabera, Debagoienera eta inguruan ordezkatuta dauden

kateen artean, oinarrizko otzara Dian da merkeena (6.508 euro urtero) eta El Corte Ingleseko supermerkatuan da garestiena (7.340 euro urtero). Horien artean daude Eroski (6.523), Eroski Center (6.675), Eroski City (6.950) eta Super BM (7.236). OCUk ez du Lidl katearen gaineko daturik.

Lidl agertzen da, ordea, beste otzaran, otzara ekonomikoa deitua, non marka zuriak edo merkeenak aukeratu dituen. Hor, Lidl da merkeena (3.861 euro urtean), eta El Corte Inglés, garestiena (5.430); tartean, Eroski (4.019), Dia (4.108), Eroski Center (4.289), Eroski City (4.469) eta Super BM (5.258).

Lan-merkatuan sartzeko

Getxok dauka batez besteko erosketa-otzara garestiena, OCUn arabera: 7.390 euro urteko. Gainera, Hego Euskal Herriko garestiena da, eta Espainiako batez bestekoa askoz txikiagoa da: 6.804 euro urteko. OCUn Antonino Joya arduradunaren esanetan, EAeko prezio handien arrazoietako bat da Mercadona ez dagoela, eta Alcampo, oso gutxi, eta biek prezio merkeen politika dute.

Praktikak eskaintzen ditu Ekonomisten Elkargoak

Esperientzia bako lizentziadunendako antolatu dituzte, lan-merkatuan sartzen laguntzeko

L.K. | ARRASATE

Ekonomisten Euskal Elkargoak sei hilabeteko praktikak egiteko aukera ematen du azken hiru urteotan arlo horretan lizentziatu direnei. Esperientzia bako lizentziadunei zuzenduta dagoenez, lan-esperientzia bat lortzeko aukera da. Urriaren 7ra arte dago zabalik izenemate epea.

Lan-merkatuan sartzeko

Sei hilabetean, enpresa baten praktikak egiteko aukera eskaintzen da, titulazioarekin lotutako prestakuntza bat jasoz (kudeaketa gaitasunak lantzen dira bertan). Elkargoko Gipuzkoako arduradun Yosune Linazisororen hitzetan, "curriculum espereientzia batekin betetzeko eta lan-merkatuan sartzeko aukera

ezinbestekoa da", kontuan hartuta esperientzia bako gazteei zuzenduta dagoela deialdia.

Bigarren hilabetetik aurrera 450 euroko diru-saria jasoko du norberak. Astean 30 orduko praktikaldia aurreikusten da. Praktikak egiteko betebeharrak hauek dira: Ekonomisten Euskal Elkargokide izatea; azkeneko hiru urteetako lizentziatura edukitzea; Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomian, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan, Aktuario eta Finantza Zientzietan eta Merkaturaren Ikerketa eta Tekniketan; 28 urtetik beherakoa izatea; lan-esperientzia ez izatea; langabezia egotea; eta Gipuzkoa, Araba edo Bizkaian bizi izatea. Argibideak, www.ekonomista.org webgunean.

Carmen Perez | Catalanoparlantes de Adopcion plataformako arduraduna

"Euskarak beste estatus bat izango luke beste estatu baten mintzatuta"

- ▶ Carmen Perezek etorkinak tokiko hizkuntzak ikastera animatzen ditu
- ▶ Hizkuntza integraziorako erreminta eta lotura afektibo sortzailatzat du

IRATI GOITIA | ARRASATE

Carmen Perez asturiarra da jaiotzez, baina Katalunian bizi da. Egun, Catalanoparlantes de Adopcion plataformaren arduraduna da, baina urte asko daramatza jendea animatzen hizkuntza adopta dezan. Are gehiago, hizkuntza bat adoptatzeak herrialde horrekiko lotura afektiboa sortzea dakarrela dio. Horrela, etorkinen integraziorako erreminta moduan hartzen du hizkuntza.

Etorkin batengana joatean, zein hizkuntza erabili behar dugu?

Plataforma per la Llengua argi dugu komunikaziorako erabilitako hizkuntzak tokikoa izan behar duela. Hemen katalanak eta hor euskarak. Badakigu hizkuntza horiek ulertzen ez dituen jende asko dagoela -batez ere Euskal Herrian euskara-, baina, gutxienez, hizkuntzarekin lehen kontaktua ezartzea da. Izan ere, kanpotarregana beti gazteleraz zuzentzen bagara, hizkuntza baten existentzia ezkatzen diegu.

Are gehiago, oinarrian, diskriminazio modura ere uler dezakegu; gure lagunekin eta gure senitartekoekin beti euskara erabiltzen badugu eta beste pertsona batengana zuzentzeko hizkuntzaz aldatzen badugu, pertsona horri hementoa ez dela esateko modu bat da, baztertzeko modua.

Beti lehenetsi behar da pertsonen arteko komunikazioa, baina lehen kontaktua euskaraz izan behar dela ziurtatu behar dugu, gerturatzeko bat egon dadin eta hizkuntza ikusgarria izan dadin kanpotik datozen pertsonentzat.

Gure ohiturak aldatu egin beharko genituzke?

Zalantzarik gabe. Gertatzen dena da oso zaila dela ohitura linguistikoak aldatzea. Txikitatik ikasten dugu hizkuntza aldaketa hori egiten, eta gero, zaila egiten zaigu ohitura hori aldatzea. Beraz, ezinbestekoa da aldaketa hori egiten dugun kontzientzia hartzea eta zein testuingurutan egiten dugun jakitea, nola aldatu asmatzeko.

Pasadizo bat kontatuko dizut: joan den astean Gasteizen izan nintzen, eta afaltzera kebab-jatetxe batera joan ginen eta nik euskaraz egin nion bertako langileari, hark ez zidan ulertu, eta, beraz, gaztelerara pasa behar izan nuen. Baina ondoren euskaraz agurtu zen eta "eskerrrik asko" esan zidan. Ziur nago lehen hitzak ez banizkio euskaraz egin, ez zela euskaraz agurtuko. Hain zuzen, kexu zen Gasteizen oso jende gutxi egiten duela euskaraz esanez eta hari inork ez diola euskaraz egiten



Carmen Perez, Catalanoparlantes de Adopcion plataformako arduraduna. | CARMEN PEREZ

gaineratu zidan. Beraz, proba egin eta ikusten da hizkuntzarekiko jarrera positiboa dutela kanpotarrek.

Etorkinak bertako hizkuntza ikaste-ko prest izaten dira?

Egun dugun immigrazioa ez da Espainiako Estatutik datorrena, beste herrialde batzuetatik datorrena baizik. Pertsona horiekin dugun zortea da ez dutela aurreiritzirik hizkuntzekiko. Espainiatik etortzen direnek konnotazio negatiboak izaten dituzte Euskal Herriarekiko eta euskararekiko; bestalde, Pakistandik edo Marokotik datozenek ez dute, hasiera baten, inolako konnotazio negatiborik. Beraz, abantaila hori gure mesedetan baliatu behar dugu.

Beste erronka handi bat da hizkuntza beharrezko egitea. Guk geuk euskarak edo katalanak ezertarako balio ez ditugela pentsatzen

badugu, zailtasun handiagoz transmititu ahal izango diogu kanpotik datorren bati hizkuntza ikastearen garrantzia.

Etorkinak hizkuntza erabiltzera erakartzea gure egunerokotasunean egin behar dugun lana da?

Nik uste dut guk gure egunerokotasunean asko egin dezakegula, baina, horrez gain, administrazio publikoak eta Gobernuak etorkinen integrazio linguistikoan langunduko duten politika eta neurri zehatzak hartu behar dituzte. Horrela, Parlamentuak, adibidez, euskaldun guztien eskubideak bermatuko dituen arauak onartu beharko litzuzke.

Eusko Jaurlaritzak horretan esfortzu handiagoa egin beharko lukeela uste duzu?

Euskal Autonomia Erkidegoko egoera legislatiboa ez dut oso ondo ezagutzen, baina hemen Katalunian

askotan gertatzen dena da badi-rela katalana babesteko arauak, baina askotan ez direla betetzen. Esaterako: produktuek katalanez etiketatuta egon behar dute edo komertzioetako errotulazioek bi hizkuntzatan egon behar dute,

"Hizkuntza bat adoptatzeak herriarekin lotura afektiboa dakar"

"Gure hizkuntzak baliagarriak direla erakutsi behar diegu etorkinei"

gutxienez, baina hori ez da betetzen. Beraz, legeak betetzen hastea izango litzateke lehen.

Baina guk geuk nola lagun dezakegu?

Immigrazio berria kontuan izanik, topiko bat hautsi behar dugu: honezkero ez da euskaldunen eta ez euskaldunen arteko bereizketarik egin behar. Immigrazioarekin, askoz hizkuntza gehiago mintzatzen dira gure herrietan; bikotomia hori faltsua da.

Bestalde, lehen esan bezala, hizkuntzaz aldatzea ez da edukazio oneko jarrera, baizik eta beste pertsona baztertzeko.

Azkenik, diskurtsoa aldatu egin behar dugu. Jada ezin dugu oinarri hartu gure hizkuntza hizkuntza historikoa dela. Diskurtso historiko horrek ez duelako etorkinengan eraginik, ez dutelako iragan hori konpartitzen. Euri gehiago interesatzen zaie jakitea etorkizuneko hizkuntza dela eta euren seme-alabentzako hizkuntza baliagarria dela.

Immigrazioa mehatxua da hizkuntza gutxituendako?

Hizkuntza gutxitudun herrialdeetan bizi garenok badakigu hizkuntzak mehatxatuta bizi direla etorkinen presentziaren edo gabe. Euskal Herrian ez dakit, baina Katalunian, behintzat, hona etorritako jendeak ez balu katalana ikasi, egun katalana desagertze bidean legoke. Beraz, mito faltsua da pentsatzea kanpotik datozenek ez dutela hizkuntza ikasten. Gainera, nik uste dut hizkuntzari kalte handiagoa egiten diotela hizkuntza jakin baina erabiltzen ez dutenek. Horren atzean hainbat arrazoi egon daitezke, baina niretzat oso garrantzitsua da hizkuntzak prestigioa izatea, erakargarri izatea. Adibidez, euskara herriko jendeak bakarrik erabiltzen duela pentsatzen bada edo jende ezjakinarekin lotzen bada, errazagoa da jendeak hizkuntza erabiltzeari uztea.

Nola ikusten duzu euskararen egoera?

Hizkuntza oro da baliotsua, baina uste dut euskara bezalako hizkuntza zahar bat Espainiako Estatu ez den beste estatu baten mintzatutako balitz, beste estatus bat izango lukeela, eta tratua hobea. Izan ere, Espainiako Estatu ez da oso sentikorra kontu linguistikoekin. Katalunian ere une zailak bizi ditugu. Trantsizioetik inor zalantzan jartzera ausartu ez den eskoletako eredu linguistiko kolokan dago orain, adibidez. Konstituzionalean hainbat errekurso ditugu eredu aldatzeko, atzerapausoak dira.

"Etorkinekin tokiko hizkuntza erabili behar da lehen kontaktuan"

"Espainiarrak ez diren etorkinek ez dute euskararekiko aurreiritzi txarrik"

TORRA+PORTELLA

Nahi baduzu, lor dezakezu

Kibuc-en orain zerbitzu azkarreko altzariak ditugu. Argazkian ikusten den sofa atsegin badezu, eta lenbaitlen etxean izatea nahiko bazendu, zatoz Kibuc-era.

KIBUC Zure bizitza errazteko aukerak

Zerbitzu azkarra



gutxieneko prezioa bermatuta



Sofa

999 €



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Sofaren neurria 272x160zm. Eserleku ateragarriak eta buru mugikorrak. "Chaise longue"aren azpia aprobetxagarria eta 2 "pouff" barrenean dituen besoa. Ezker edo eskubialdean izan daiteke "chaise longue"-a.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Juan Manuel Minguez | Herri Batasuneko zinegotzia Bergaran (1983-87)

- ▶ Agintaldi bakarra egin zuen Udalean, eta Hirigintza batzordean lan egin zuen bereziki
- ▶ Oposizioan lan egitea egokitu zitzaion; EAJ zegoen gobernuan, Imanol Bolinaga alkate zela
- ▶ Ingeniari elektronikoa, Danobat taldean egin du lan; erretiratuta dago

"Hirigintza ikuspegitik, Bergara nolakoa izango zen urte haietan markatu zen nolabait"

EDU MENDIBIL | BERGARA

Elkarrizketara ondo gertatuta dator Juan Manuel Minguez (Eibar, 1947). Bergarako Udal Artxiboan izan da, zinegotzi izan zen garai-ko aktak eta bestelakoak aztertzen. Nota pilo bat ekarri ditu bizi izan zituen osoko bilkuretatik. "Gustura ibili nintzen orduko kontuak gogoratzen", dio. Lau urtez egon zen Udalean, 1983tik 87ra. EAJk gehiengoa zuen Imanol Bolinaga alkate zela eta Herri Batasuna bigarren indarra zen, lau zinegotzirekin. Arrasateko Eskola Politeknikoan Ingeniaritza Elektronikoa ikasi zuen Minguezek eta bizitza osoan Danobat taldean (Sorlucen eta Idekun) lan egin ostean, erretiratuta dago.

Nola hasi zinen politikan?

Lau urtez Aramaion bizi ondoren, Bergarara etorri ginen, 1978an. Ordurako banuen kontaktua politikarekin, baina Bergaran eta batez ere *Egin* egunkariako arazoak zirela eta, Jose Luis Elkoro eta Juan Ramon Arangurenekin harremanetan hasi nintzen eta haiek animatu ninduten Herri Batasuneko zerrendetan joateko. 1983ko



Juan Manuel Minguez, Usondo parkean egunean. Haren alaba, Enara, zinegotzi jardundakoa da baita. | E.M.

hauteskundeetan lau ordezkari lortu genituen; EAJ gobernuan zen bederatzi zinegotzirekin; PSOEek bi zituen; eta EEEK eta EMKk, bana.

Oposizioan lan egin behar izan zenuten.

Bai. Niri Hirigintza batzordea egokitu zitzaidan eta oso oroitzapen onak ditut. Ordu asko sartzen genituen, ia astelehenero 17:30e-

tik 22:00etara egoten ginen udal-letxean batzartuta... Iñaki Osa zen batzordeko presidentea eta Retegi (EAJ), Garitano (EMK), Herzog (EE) eta ni neu alderdi ezberdinetako ordezkariak. Xabier Ieregi zen udal arkitektoa ordurako, Azpiazu ere etortzen zen... Niretako gai berria zen hirigintza, baina asko ikasi nuen. Akordatzen naiz zelan Jesus Mari Garitanok herriko bazter guztiak ezagutzen zituen. Elkarlanerako giroa zegoen. Esango nuke orduan finkatu zela nolabait nolakoa izango zen gaurko Bergara. Egitura urbanistikoaren irizpide nagusiak markatu ziren sasoi hartan.

Ez ziren garai errazak 1980ko hamarkada hasierakoak, ala?
Ez. Biolentzia armatua pil-pilean

"Biolentzia armatua pil-pilean zegoen eta tentsioa handia zen urte haietan"

"Demokrazia parte hartzailearen aldeko urratsak egitea zen helburuetako bat"



Minguez (3.a eskumatik) beste ordezkari batzuekin Iparraldera egindako bidaia baten.

zegoen eta tentsioa izugarria zen. 1983tik 87ra GALEk 23 atentatu egin zituen, ETak gehiago... Udaleko momentu gogorrenak mozio politikoak aztertzen bizi izango genituen. Esaterako, Imanol Bolinagak osoko bilkura bertan behe-laga zuen ETak Diaz Arcocha Ertzaintzako superintendente hil zuenean; *Panti*-ren estradizioa zela eta, giza eskubideen aldeko mozioa aurkeztu zuen Bolinagak berak eta onartu egin genuen, PSOEren kontrako botoarekin... Hamaika mozio politiko-sozial aurkeztu genituen eta sei izan ziren onartutakoak. Garai hartan hasi ginen HBko zinegotziok presoie bisitak egiten eta euskaraz jasotzen zituzten karten itzulpena (bost hilabete inguru) azkartzea eskatzen zuen mozioarekin EAJ ere ados azaldu zen...

Udalean egindako lanetatik, zein nabarmenduko zenuke?

Bergararen *eskeleto* urbanistikoaren zehazteaz gain, bi gauza nabarmenduko nituzke: batetik, demokrazia parte hartzailearen alde egindako urratsak; eta bestetik, euskararen erabilera. Osoko bilkuretan eta batzordeetan euskararen presentzia erabat indartu zen agintaldi hartan.


Gauzatu gabe geratu zen ezer?

Arrizuriagari kultura erabilera eman eta parkeaz herriak disfrutatzea zen gure asmoa, baina EAJk han Ertzaintza kokatzaren aldeko apustua egin zuen. Pena horrekin geratu ginen orduan.

Politika hurbiletik jarraitzen duzu?

Bai, militante moduan. 2009an ezker abertzalearen barruan izandako hausnarketa prozesuan hartu nuen parte, eta gustatzen zait herriko kontuak jarraitzea.

Gremioen gida




Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKAZU?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



HERRIAK

ESKORIATZA

Euskarari lehentasuna emango dion araudi berria onartu du udalbatzak

- ▶ Osoko bilkurak euskaraz izango dira, zinegotzi elebakarrendako itzulpen zerbitzua jarrita
- ▶ 2008an onartu zen azkeneko hizkuntza politika; hainbat aldaketa egin diote orain horri

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak datozen lau urteotarako hizkuntza politika aho batez onartu zuen irailaren 21ean egindako azken osoko bilkuran. Berrikuntzekin dator araudi berri hori; esanguratsue-na da hemendik aurrerako osoko bilkurak euskara hutsean egingo direla eta gaur egun euskararik ez dakiten bi zinegotziendako itzulpena jarriko dela.

Horren harira, honakoa azaldu du Eskoriatzako alkate Beñat Hercek: "Hilero egiten ditugun osoko bilkuretan nahi dugu euskara izatea erabiliko dugun hizkuntza bakarra; baina, zinegotzi guztiak euskal hiztunak ez direnez, itzulpen zerbitzua jarriko dugu, komunikazioa errazte aldera".

2008. urtean onartu zen azkeneko Eskoriatzako Udalaren hizkuntza politikarako txostena. Agintaldi berria hasi dela-eta, udal ordezkari berrieekin proposamen berria landu eta batzordearen oniritzia jaso ostean, osoko bilkuran onartu dute.

Hirigintzako hitz teknikoak

Araudia lau ataletan dago banatuta: Itzulpen politikari dagokionez, osoko bilkuraz gain, batzorde informatiboetan ere zelan jokatu behar den zehazten da. Hirigintza, Ogasun eta Pertsonal batzordeetako batzarrak ele bietan izango dira; eta gainerakoak euskaraz, zinegotzi elebakarrik ez dagoenean. Aktei dagokienez, Hirigintzakoak gaztelaraz sortzea eta euskarazko laburpena egitea adostu dute, "hitz teknikoak" direla-eta. Gainerakoetan euskara erabiliko da.

Bestetik, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ere jasotzen dira. Ahal den guztietan, testua euskara hutsean erabiliko da, eta ez da sinatuko gaztelera hutsean idatzitako kanporako idatzirik. Edonola ere, ele bietan idatziz gero, euskarari emango zaio beti lehentasuna. Bestalde, ahozko komunikazioei dagokienez, harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera leketan...) euskaraz egingo dute lehen hitza udal langileek, eta gero solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Udal barruko



Besteak beste, udal ordezkariak eta langileek herritarrekin izango duten erlazioa jasotzen du araudi berriak. | MIRIAN BITERI

11 zinegotzitik 9 euskaldun

Udalbatzako kide berrien hizkuntza gaitasuna ere aztertu dute. 2011-2015 agintaldian, 11 kidez dago osatuta udalbatza, eta horietatik 9 euskaldunak dira (%81,82). Euskaldun zaharrak eta euskaraz berba egiteko ohitura dutenak dira, gainera. 2007-2011 agintaldian ere zinegotzi euskaldunen kopurua bera zen; 2003-2007 agintaldiko datuak okerragoak ziren, azken agintaldi horretako 11 kideetatik lau ziren-eta elebakarrak (%36,36).

harremanak, ahal den neurrian euskaraz izango direla ere aurreikusten da.

Bestalde, langile eta funtzionarioen hautaketa prozesuetarako irizpideei dagokienez, kontuan izango dira Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea eta 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Udalarekin euskaraz

Eta, azkenik, kontratazio administratiboetarako irizpideak jasotzen ditu araudiak. Besteak beste, obra, hornidura, aholkularitza eta laguntza, eta zerbitzuak kudeatzeko kontratuetan enpresa esleipendunak Udalarekin duen harremanetan "normalean" euskara erabiliko duela aurreikusten da.

Horretaz gainera, kontratu mota edozein delarik ere, Udalak hizkuntza betebeharrak derrigo-

ESANAK

"Nik uste dut euskararen normalizazioan Udalak eredu izan behar duela"

"Gure helburuetako bat da euskara indartzea, bai ezagutzan eta baita erabilera aldetik ere"

BEÑAT HERCE | ALKATEA

rezko baldintza moduan ez eskatzea erabakiko balu, zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna meritu moduan baloratuko dela aipatzen da onartutako hizkuntza politika berrian.

Urriaren 19tik

Orain alegazioak aurkezteko garaian daude Eskoriatzan. Dena aurreikusitako bezala irtetzen baldin bada, urriaren 19an egingo duten osoko bilkuran politika berria aplikatzen hasi nahi dutela azaldu du Hercek.

Txosten horren helburua da 2011/2015 agintaldirako Udalaren hizkuntza politika zehaztea; hain justu, euskararen normalizazioan jarraitu nahi den ildo definitzea. Horren harira honakoa esan digu alkateak: "Gure helburuetako bat da euskara indartzea bai ezagutzan eta baita erabilera aldetik ere. Horren harira, nik uste dut euskararen normalizazioan Udala eredu izan behar dela".

OÑATI

Parranda ez da bukatu; gaur mozorroen txanda da!

- ▶ Jaietako azken eguna dute gaur Oñatin
- ▶ Herri Egunak jaietako izarra izaten jarraitzen du

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Eguazteneko danborrada eta parrandaren ostean, egunean atseden hartu eta egubakoitza indarberrituta hasi zuten oñatiarrek; asteburu luzea eta intentsoa zuten aurretik, nobedadeekin gainera.

San Migel jaietako egubakoitza Egun Morea izendatu dute aurten eta emakumeen eskubideen aldeko keinuak erantzun ona izan zuen. Txosna gunean egindako bazkarian lagun talde polita batu zen eta ondorengo olinpiada moreetan momentu dibertigarri asko bizi izan ziren. Dena dela, egunaren izena ez zen izan egubakoitzeko nobedade bakarra; txikitxoendako ere izan ziren berrikuntzak. Txantxi Familiaren Eguneko ludoteka, tailer eta lehiaketetan ederki asko ibili ziren etxeko gaztetxoak.

Urteko egunik politena

Egubakoitzean ez zen komeni oso berandu oheratzerik, hurrengo eguna egun handia zuten oñatiarrek: Herri Eguna. "Urteko egunik politena da", zioen batek; "Tradizio handiko eguna da eta oso euskalduna gainera", beste batek; "Urte guztian egoten gara egun hau iristeko zain"...

Zalantza barik Herri Eguna oñatiarren egun kuttunena da. Aurten gainera eguraldia ere lagun izan dute eta goizeko lehenengo orduetarako baserritar jantzita oñatiarrek unibertsitate inguruko kaleak eta herriko plaza hartu zituzten. Taloa erosteko ilara izugarriak, barazki eta fruitu postuetan jendetza, unibertsitateko artisau azoka ere beteta eta herriko plaza gainezka, sekula baino gehiago. Eguerdiko ordu bata inguruan Herri Eguna bere onenean zegoen.

Gazta lehiaketa oso parekatua

Urtero moduan lehiaketen artean gaztarenak eragin zuen ikusmin gehien. Zortzi lagunek osatutako epaimahaiak ez zuen lan erraza izan. Aurten gainera, lehenengo aldiz, emakume bat ikusi ahal izan dugu epaimahaian. Aurkeztutako 15 gazten artean, lehenengo, sei aukeratu zituzten eta ondoren, sei horien artean, lehenengo hirurak. Epaimahaiko kideek azaldu zuten erabaki zaila izan zen, lehenengo bien artean puntu berdinketa zegoen eta desenpatea egin behar izan zuten. Azkenean Azkarreta baserriko Ramon Ugarteren gaztak irabazi zuen lehengo postua.

Domeka, trantsizio eguna

Herri Eguna domeka goizean amaitu zuten askok. Txosna gunea 10:00etan itxi zuten. Beraz, atzokoa egun gogorra izan zen askorendako. Dena dela, Errosaixo Eguna izanda bazegoen zer egin eta zer ikusi. Zubikoa nahikotxo bete zen San Migel txapelketako finalak ikusteko eta balkoitik balkoirako bertso saioak ere entzule dezente lortu zituen.

Atzeko kaleko eszenatokia

"Giro bikaina izaten ari gara eta pozik gaude herritarren parte-hartzearekin", esan digu Kultura zinegotzi Manu Egañak. Besteak beste, Atzeko kalean ipinitako eszenatokiaren arrakasta azpimarratu du: "Oso giro polita sortu da. Laja eta Narbaiza trikitilarien erromerian, esaterako, jende pila bat batu zen". Egañak adierazi du, jai lasaiak izaten ari direla eta parrandak errespetuz egiten ari direla herritarrek.

Jaiak ez dira amaitu oraindik. Baserritar jantziak armairuan gorde eta mozorroak ateratzeko garaia da orain. Gaur, Errosaixo Bixomona Oñatin!



Iñaki Olalde eta Alberto Elortza gazta lehiaketako epaimahaikideak. | JULIO CALLEJA



Zapatu eguerdi partean herriko plaza topera bete zen eta ilara luzeak egin behar izan ziren.



Herritarrek unibertsitateko artisau azokan. | JULIO CALLEJA



JULEN, AIOR ETA JULEN
OÑATI

"Herri Eguna asko gustatzen zaigu. Animaliak dira gehien gustatzen zaiguna eta batez ere kumetxoak. San Migel jaietako egunik politena da. Egun guztian zehar kalean ibiliko gara eta gauean barraketara joateko asmoa daukagu".



OIER, AMAGOA ETA NAROA
OÑATI

"Familia guztia baserritar jantzita irten gara. Taloa jan dugu, ganadua ikusi dugu eta orain postrea erosiko dugu, euskal pastela. Gaurkoa oso egun polita izaten da oñatiar guztiondako. Bi umerekin gaueko juerga apur bat konplikatu egiten zaigu, baina ikusiko dugu zer egin".



IXIAR AZKARGORTA
OÑATI

"Salmentak nahiko ondo doaz oraingoz, jendea ikusten dabil, baina erosten ere bai. Denetarik ekarri dugu: madariak, sagarrak, intxaurrak, pikuak..."



MIKEL ARIZTIMUÑO
OÑATI

"Tripak zarataka ditugu eta taloa jatera etorri gara. Azokatik bueltatxo eman dugu eta egun guztian ibiliko gara kalean, baita gauean ere".



Txantxi Familiaren Eguneko ludotekan ume koadrila bat. | TXOMIN MADINA



Talogileak fin-fin lanean Herri Eguneko tabernan. | JULIO CALLEJA



Umea taloa jaten. | JULIO CALLEJA



...n sagardoa dastatzeko. | JULIO CALLEJA



Kalabaza ikusgarriei begira emakume talde bat. | JULIO CALLEJA



Sagardoa ateratzen. | JULIO CALLEJA



Domeka arratsaldean egindako Rezikletas kale ikuskizuna. | JULIO CALLEJA



Baserritarrez jantzitako familia astoei begira unibertsitate pareko ganadu azokan. | JULIO CALLEJA



MADDI URKIA
OÑATI

"Lehenengo bueltatxo ematen ari naiz orain. Oso egun berezia da gaurkoa. Atzo zintzo-zintzo goiz oheratu nintzen gaur bixamonik ez izateko".



AITOR URZELAI
OÑATI

"Sekulako eguraldi ona egiten du eta jendetza dabil. Urteko egun berezia da Herri Eguna; tradizio handikoa da eta oso giro euskaldunduna".



JOXE MARI ALBIZTEGI
OÑATI

"Euskal pastela, gazta eta foie erosi ditut eta pozik nago. Urteko egun politena da gaurkoa, gauza asko egoten da egiteko, ikusteko eta dastatzeko".



JUAN MARI ANDUAGA ETA JOSE INZA
OÑATI

"Ganadua ikusten ari gara eta esan behar dugu oso ganadu ona dagoela hemen. Gure sasoiaren ezinezkoa zen ganadua gaur bezala zaintzea eta elikatzea eta ez zen hain ikusgarria izaten. Jendetza dabil, eguraldi ona egin du eta jende mordoak gerturatu da, baserritarrak eta baita kaletarrak ere. Giro aparta dago".



Gazte lagun talde bat zapatuan Zubikoan egindako herri bazkarian. | IRATI GOITIA



Bizardunak taldea zapatu gauean txosna gunean. | MIREN ARREGI



Egubakoitzean txosna gunean egindako Olinpiada moreetako joko bat. | IRATI GOITIA



Egubakoitzeko sukamuturra. | J.C.



Bi neskatila lore tailerlean gustura. | JULIO CALLEJA



Atzo arratsaldean tortila lehiaketa egin zuten txosna gunean. | JULIO CALLEJA

DATUAK

2.500

ZAPI

Oñatiko Udalak lehenengo aldiz jaietako zapiak ipini ditu salgai eta ekimenak oso erantzun ona izan du. 2.500 zapi saldu dira.

850

PERTSONA

Zapatuan 850 lagun elkartu ziren Zubikoa kiroldegian egindako herri bazkarian. Trikiti doinuekin festa giro aparta izan zuten.

2.000

TXORIZO

Talo eta ogitartekoen postua jendez lepo egon zen urtero moduan. 2.000 txorizo inguru saldu zituzten eta 100 kilo hirugihar.

15

GAZTA

Gazta lehiaketan iaz baino hiru parte-hartzaile gutxiago egon ziren, baina maila oso altukoak denak.

Fruitu, barazki, ardi, bildots eta ahari lehiaketak

Oñatiko baserritarrek oso kalitate oneko produktuak jaitsi zituzten kalera Herri Egunean eta urtero moduan lehiaketak egon ziren kalitate hori neurtzeko. Aldai baserriko Nestor Alzelaik irabazi zuen ardi lehiaketa, Jaumendi baserriko Haritz San Migelek bildots lehiaketa eta ahariena, berriz, Zela baserriko Imanol Barrenak. Fruitu lehiaketari dagokionez Iruatz baserriko Felix Azkargortak lortu zuen lehenengo postua eta barazkienean Santa Kruz baserriko Iban Telleriak.

Dena dela, lehiaketetan izarra gaztarena izaten da. 15 gazta aurkeztu ziren aurretik eta lehenengo hirurek oso alde gutxiko puntuaketa lortu zuten. Azkarreta baserriko Ramon Ugarteren gaztak irabazi zuen lehen saria, Gomiztegi bigarrena eta Mañako Maximo Zumaldek hirugarrena.

Parrandan goizaldera arte txosna gunean

Zapatuan talo, txorizo eta sagardoarekin hasitako parrandak txosna gunean jarraitu zuen domekako goizeko 10:00ak ingurura arte.

Bizardunak taldea izan zen Herri Eguneko gaua girotzen hasteko ardurua izan zuena. Talde nafarrak jendetza batu zuen txosna gunean. Argia behin baino gehiagotan joan zen arren eta taldekideak eurak oso fin ibili ez ziren arren, zaleek gustura jarraitu zuten kontzertua; festarako eta dantzarako gogo handia zegoen.

Bizardunak taldearen ostean Miren, Agur eta Gorkaren eskutik dantzan jarraitzeko aukera izan zen. Hirukoteak urtero moduan, txosna gunea dantzan ipini zuen. Erromeriako betiko abestiek sekulako arrakasta izan zuten. Goizaldeko ordu txikietan dantza batean jarraitzen zuten askok.

ERROSARIKO BIXAMONA

ASTELEHENA 13

09:30 Sokamuturra plazan.

12:00 Musika bandaren kalejira.

14:30 Herri bazkaria txosna gunean.

17:00-19:30 Sokamuturra.

18:00 Txosna gunean Di-Bertsioak: Oñatiko taldeen bertsio-kontzertua.

18:00 Foté Faré taldearen dantza eta perkusio kalejira.

20:00 eta 23:00 Plazan Xaibor disko-jartzailearekin dantzaldia.



Bertso eskolaren sortzaileak, Santi Iparragirre, Juanito Akizu eta Patxi Goikolea, egubakoitzean enbutuarekin. | MA

ARRASATE

Enbutua lehen bertso eskolako sortzaileek jaso zuten, bertso artean

Nobenaixuek eman zituen bereak, ardo, gazta, enbutu eta bertso artean

MIREN ARREGI | ARRASATE

Urteroko hitzordua da Maritxuren irudipean ospatzen duten Nobenaixue. Eta aurten ere ez du hutsik egin jai batzordeak. 18:30etan puntuan hasi ziren herritarrei gazta eta ardoa banatzen eta ordu erdian, bete egin ziren parrokia inguruak. Bapo jan eta edan ondoren eman zuten batzordeak enbutu preziatua aurtengo omenduei: Patxi Goikoleari, Juanito Akizuri eta Santi

Iparragirreri. Horiek izan ziren Euskal Herriko lehen bertso eskola sortu zutenak. "Zapatu goizetan lan egiteari utzi genion orduan eta bertsolaritza irakasten hasi ginen", gogoratu zuen Patxi Goikolea arrasatearrak. "Almen ikastetxeko guraso ginen orduan eta 70 bat umeri eskolak emateari ekin genion. Gero, erraztasun handiena zutenak bereiztu eta haiei ere bertsolaritza irakasten jarraitu genuen" zioen

Santi Iparragirrek. Juanito Akizuk gaineratu zuen, pozik hartu dutela Maritxu Kajoi jai batzordearen omenaldia nahiz eta uste duen ez dutela horrelakorik merezi.

MKJ abestia ere aurkeztu zuten Hainbatetan entzun ahal izan zuten MKJ kantua plazan bildutakoek. Kantua aurkeztearekin batera, abestiaz osatutako CDA banatu zuten herritarren artean.

ESANAK

"Duela 37 urte hasi genuenak eman ditu fruituak eta pozik gaude"

PATXI GOIKOLEA | SORTZAILEA

"Omenaldi xumea eta oso ederra egin digute; baina ez genuen merezi"

JUANITO AKIZU | SORTZAILEA

"Bertsotan ikasi zitekeela erakutsi genuen; 70 bat umerekin hasi ginen"

SANTI IPARRAGIRRE | SORTZAILEA



BERGARA

JULIO CALLEJA

Kukutzaren alde, manifestazioa

Egubakoitzean, elkartasun manifestazioa egin zuten Bergaran, Bilboko Kukutza gaztetxearen hustea, ertzaintzak izandako jarrera eta gaztetxearen eraispena salatzen. *Kukutza aurrera, ametsak ez dituzte botako* lelopean egin zuten. Ertzaintzak manifestazioaren aurrealdean zioazenei identifikazioa eskatu zien.



ARRASATE

MIREIA BIKUNA

Buzkantzak eta jaiak Garagartzan

Asteburu ederra pasatu dute Arrasateko Garagartzako auzotarrek. Egubakoitzean San Migelen omenezko mezarekin hasi zituzten jaiak eta atzo amaitu zituzten. Tarte horretan, gazte zein helduentzat ekimen mordoak izan dituzte eta urteroko ohitura den legez, buzkantzak jan dituzte, aurten 250 kilo inguru.

BERGARA

San Lorentzo auzoan ospakizunetan

Nahiz eta jaiak abuztuan izaten diren, Bergarako San Lorentzo auzoko bizilagunek ospakizuna izan zuten zapatuan. Lehen lehenik, auzotarrak elkartu ziren talde argazkia egiteko. Auzoko hildakoen aldeko meza ere izan zuten, eta ondoren, afaritarako elkartu ziren Agorrosinen. 110 lagun inguru elkartu ziren eta dantzatzeko aukera ere izan zuten. Hain justu, Javishow oñatiarrak alaitu zuen afalostea.



JULIO CALLEJA

Fagor Garagartza ondoko biribilgunea aurrera doa

Errepidea zabaltzeko hondeaketa-lanekin dabilta orain; otsailera arte iraungo dute lanek, gutxienez



Errepidea zabaltzeko hondeaketa-lanekin dabilta orain; oraingoan, lanek ez dute zirkulazioan eraginik. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurrera doa Fagor Garagartza lantegi ondoan biribilgunea egiteko lanak. Abuztuaren 22an hasi zituen obrak UTE Arrasate deritzon enpresen elkarteak, eta, bertako langileen arabera, errepidea zabaltzeko hondeaketa-lanekin dabilta orain. Izan ere, biribilgunea kokatuta egongo den lekutik pasatzen diren zerbitzuak egokitzen hasteko zerbitzuon arduradunen zain daude: "Telefono-sarekoek duela 15 egun etorri behar zuten, baina oraindik ez dira etorri". Telefono-sareaz gain, gasa eta biribilgunea joan behar den lekutik pasatzen den errekatxoa desbideratu egin behar dute.

Lanak abenduan amaitzea sinatu zen hasieran, baina Hirigintza Sailak uste du beranduago amaituko direla. Langileen arabera, otsailera arte, gutxienez, iraungo dute lanek.

Arindu eta seguruago egin

Biribilgunearen helburua da errepide tarte horretan sortzen den zirkulazioa arindu eta segurtasuna bermatzea. Bestalde, obrek iraun bitartean ahalik eta eragozpen gutxien sortzea espero du Udalak. Izan ere, biribilgunea Garagartzatik Arrasatera bidean eskuinaldera geratuko da –egungo errepedetik metro gutxira–, eta zatikako mozketak izango dira eragozpen aipagarrienak. Beraz, Udalak ez du aurreikusten norabideren bat moztu beharko duenik, oraingoan.

Santamasetarako kaleko salmentarako lizentzia eska daiteke

Hiru hilabete eskas falta diren arren, Udalak onartu du santamasetan Garibai eta Kontezino kaleen artean kaleko salmentarako lizentziak banatzeko plegua. Bihar, urriak 4, hasiko da izen-ematea; azaroaren 7ra arte eskatu ahal da lizentzia.

Edozeinek erabiltzeko jardura da eta edonork eska ditzake lizentziak. Hala ere, informazio gehigarria eta plegu osoa Udalaren webgunean kontsulta daiteke: www.arrasate-mondragon.net.

Egubakoitzerako Amaiako atariko lanak amaituta egongo dira

Amaia antzokiaren ataria egokitzeko obrak egubakoitzerako, Maritxu Kajoi egunerako hain justu, amaituta egotea aurreikusten du Udalak. Izan ere, joan den astean aurkeztu zuen Kultura Sailak urritik abendura arteko egitaraua, eta, orain arte lanek zinema eskaintzan eraginik izan ez badute ere, bestelako ikuskizunendako amaituta egon behar dute obrek.

Ataria irisgarriago egiteko eta sarrera libratzeko egin dituzte lanak. Hala, aurrerantzean oinezkoek izango dute lehenasuna.

Eguenean hasiko dute 'Kooltur ostegunak' ekimeneko bigarren edizioa

Nobedadeak egongo dira; adibidez, urteko bonuak zozketatuko dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Kooltur Ekintzak taldeak indarrez hasiko du bigarren denboraldia. Maritxu Kajoi bezperan, eguna, hasiko dute 2011-2012 edizioako Kooltur ostegunak ekimenaren Atom Rhumba taldearekin.

Sei lagunek osatzen dute Bilboko rock-and-roll taldea. Zuzeneko gordinak eskaintzen dituzte, funk, blues eta rock doinuak nahastuta. 2010ean argitaratutako *Gargantuan Melee* lana eskainiko dute; hain zuzen, Atom Rhumbak euskaraz abesten duen lehen abestia jasotzen du diskoak: *Istingako mutikoa*.

Berrikuntzak ekintzetan

Iaz bezala, kontzertuak eguenetan izango dira, 22:00etan, gaztetxean, 5 euroren truke. Horren harira, gainera, berrikuntza bat izango da aurtengo denboraldian: errifak salduko dituzte eta errifa horiekin urte osoko bonu bat zozketatuko dute. Diruarekin, besteak beste, musika ekipoa ordainduko dute.

Lehenengo edizioa, datutan

Kooltur Ekintza taldea pozik dago Kooltur ostegunak ekimenaren lehenengo edizioarekin. 2010-2011-ko eguenetan 28 kultura emanal-



Atom Rhumba bilbotarrak. | GOIENA

di egin zituzten, eta, batez beste, 98 pertsona izan ziren. Bigarren ediziorako ere gogotsu daudela azaldu du Aritz Zubiate taldeko kideak. Gainera, talde indartsu batekin hasiko dutela gaineratu du.

Bada, dagoeneko gertu dute urriko agenda. Atom Rhumbaren ondoren Mursegok joko du gaztetxean urriaren 13an; urriaren 20an, Fly Shit-ek; eta urriaren 27an Sumision City Blues taldeak jardungo du.

Neguko aterpetxea egokituko du Udalak

J.B. | ARRASATE

Aurten ere Udaleko Ongizate Sailak neguko aterpetxe-zerbitzua eskainiko die Arrasaten etxerik gabe bizi diren pertsonen, neguan zehar aterpetxean bertan gaua igarotzeko aukera izan dezaten. Nafarroa etorbidean dago egoitza –Udaltzaingaren egoitzatik gertu– eta azaroaren 1etik martxoaren 31ra bitartean eskainiko dute zerbitzua.

Aterpetxea ireki aurretik, baina, egokitze lan batzuk egin behar dituzte; hala erabaki zen azken tokiko gobernu batzarrean. Egoitzaren antolamendua aldatu behar dute lehenik eta behin; hau da, lokalaren barruko konfigurazioa hobetu egin behar dute. Horrez gain, argindar sarea aldatu eta egokitu egin behar dute, oraingoa ez dago eta egoera onean. Gainera, bestelako konponketa txiki batzuk ere egin behar dituzte, Ongizate Sailak esandakoaren arabera.

Lanak azaroaren 1erako amaituta egotea espero dute.

Errugbi taldeak batzar orokorra egingo du urriaren 10ean

Arrasate errugbi taldeko zuzendaritza taldeak batzar orokorra deitu du datorren astelehenerako, urriak 10. Mojategin izango da batzarra, 19:00etan. Bost gai izango dituzte berbagai: batzartutakoan zerrendatzea; aurreko akta irakurri eta onartzea; 2010-2011 denboraldiko kirol balantzea eta balantze ekonomikoa azaltzea; denboraldi berrirako kirol helburuak zehaztea; eta, azkenik, galde-erregu tartea izango dute batzartutakoek.

Ayrton Senna pilotuaren gaineko filma Amaian

Bihar, matitzena, *Senna* filma eskainiko dute Amaia antzokian, 20:30ean. Asif Kapadia zuzendariaren lana da, eta Aytorn Senna 1 Formulako auto gidariaren gaineko biografia da. 109 minutuko iraupena dauka filmak. 1 Formulako txapeldun izan zen Senna brasildarra hiru urtez; 1994an, 34 urterekin hil zen Imolako zirkuituan izandako auto istripuaren ondoren. Ayrton Senna, Alain Prost eta Frank Williams dira protagonistak.

Usoa Mendikute: "Nire bizitzako momentuak islatu nahi izan ditut"

Artista bergararrak "Momentos" izenburuko erakusketa jarri du ikusgai Bartzelonako La Cotxera tabernan, urriaren 31 ra arte

EDU MENDIBIL | BERGARA

Usoa Mendikute artista bergararrak erakusketa zabaldu zuen egubakoitzean Bartzelonako La Cotxera tabernan (www.cotxera.com). Azkenaldian Bartzelonan bizi da Usoa eta egunotan taldekako erakusketa ere dauka han, Fundacion Steba delakoan hain zuzen; hamaika artistaren lanak aukeratu dituzte, *Setba Jové* erakusketan, Plaza Realeko 10. zenbakian dagoen erakustokian. Biak ere urriaren 31ra arte izango dira ikusgai. Aurtengoa urte emankorra gertatzen ari dela diosku Usoak.

Bartzelonan bakarkako bi erakusketa egin izan ditu aurretik, otsailean Guinardoko Zentro Zibikoan eta udan, uztailean eta abuztuan, Gracia auzoko Sol De Nit tabernan. Aipatzekoa baita otsailean, Gipuzkoako Artista Berrien 44. ekitaldian, haren lanetako bat aukeratu zutela. Martxotik maiatzera egon zen ikusgai Usoaren margolana Donostiako Koldo Mitxelena aretoan, gainerako artista gazteen lanekin batera.

Momentu esanguratsuak

Urriaren 3tik 31ra *Momentos* erakusketa jarri du La Cotxera tabernan. Besteak beste, *Proyecto Rosa*, *999*, *Vaca Loca*, *Fontana*, *Zast!*, *Snake* eta *Naturaleza Muerta* lanak jarri ditu ikusgai. Zera diosku artista bergararrak: "Koadro bakoitza nire bizitzako momentu zehatz bateko adierazgarria, esanguratsua da eta hortik dator izenburua".

Virrei Amat auzoan dago La Cotxera taberna eta erakusketak egiteaz gain, eguenero kontzertuak



Usoa Mendikute Bartzelonan bizi da gaur.

antolatzen dituzte eta bestelako kultur jarduerak ere sustatzen dituzte tabernako arduradunek. Taberna 19:00etan zabalitzen dute, goizeko ordu biak aldera arte. Bartzelonara hurbildu eta erakusketa ikusteko gogoia dutenen-

dako, metroan joanez gero, Virrei Amat geltokitik gertu dago La Cotxera taberna.

11 artista

Uztailean zehar 100 bat artistek (Mendikute tartean) erakusketa



999, Mendikuteran lanetako bat.

egin zuten Bartzelonako Guinardo auzoko Zentro Zibikoan. Diziplina guztietako artistak batu ziren: pintura, eskultura, bideoa, instalazioa... Urtero antolatzen duten ekintza da eta *Stripart* du izena. Amaiera ekitaldira, elkarre eta entitate ezberdinetako ordezkariak joan ziren, aukeraketa bat egiteko eta aukeratutako 11 artisten artean Usoa dago; hortik etorri da Plaza Realen dagoen erakustokian bere lana erakusteko aukera.

Joan den irailaren 6an zabaldu zuten *Setba Jové* erakusketa. Xabier Alabart, Diego Bernardez, Mirella Häninnen, Daniel Pujalte, Stella Velilla, Jonathan Marmol edo Daniel Fuster dira bergararrarekin batera lanak erakusten dituzten artistetako batzuk.

Aukera bikoitza beraz Bartzelonan Usoa Mendikuteran lana ezagutzeko.

OHARRAK

JOLASLEKU IBILTARIA EGUBAKOITZEAN

Egubakoitzean, urriaren 7an, jolasleku ibiltaria izango da Ibargaraiko ziburuetan, 17:00etatik-19:00etara. Jarduneko begiraleen eskutik, jolasak eta kantuak jorratu ahal izango dituzte ume zein gurasoek.

EAJ: BOTOA POSTA BIDEZ

Azaroaren 20an botoa postaz eman nahi dutenendako bulegoa ireki du EAJk Batzokian, 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara. Argibideak 943 76 47 00 telefono zenbakian.

'PLUJA SECA'

ZABALOTEGIN ETZI

Gorka Espiauk zuzendutako *Pluja seca* (*Euri lehorra, nazioarteko bitartekariak Euskal Herrian*) filmaren proiektzioa izango da urriaren 5ean Bergaran. Emanaldia 19:00etan izango da Zabalotegin eta jarraian mahai-ingurua izango da Espiaurekin eta Paul Rios Lokarriko koordinatzailearekin.

ARANZADI IKASTOLA: HERRI BAZKARIA ZAPATUAN

Aranzadi Ikastolak 40. urteurrena ospatuko du zapatuan, urriaren 8an, IV. Ikastola Egunarekin bat eginez. Ekitaldien artean herri bazkaria izango da Udal Pilotalekuan. Txartelak urriaren 5era arte daude eskuragarri, 21 eurotan (helduak), 18 eurotan (ikasleak) eta 11 eurotan (haurrak).

ODOL ATERATZEA ANBULATORIOAN ETZI

Bergarako Odol Emaileek deituta, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, urriaren 5ean, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era.

1961EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 8an bazkaria Lasa jatetxean, 50 urte egiten dituztela ospatzeko. Izen-ematea Nahikari (943 76 57 71) edo Dixula tabernan (943 76 44 95) egin daiteke.

1941EKO BERGARARRAK

1941. urtean jaiotako emakume eta gizon bergararrek bazkaria egingo dute urriaren 15ean Tartufon, 14:30ean. Ordu erdi lehenago, 14:00etan, Santa Marina aurreko bus geltokian elkartuko dira autobusez igotzeko San Juanera. Lazkano oinetako-dendan eman behar da izena, 20 euro ordainduta, urriaren 11 baino lehen.

1944AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an bazkaria izango dute Zumelagan 1944an jaiotakoek. 13:00etan elkartuko dira Irala kalean. Izen-ematea, urriaren 15era arte: 943 76 21 86 (Ana Mari), 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia) edo 943 76 10 32 (Florita).

Angiozarko San Migel jaiei agur

San Migelen zeruratzearekin amaiera eman zieten Angiozarko jaiei, eguenean. Jende ugari batu zen plazan santua askatzeko. Hainbat globoz lagunduta, abiada bizian joan zen santua zeruan gora, 20:00etan puntuan. Santua topatzen duenak Angiozarko bisitatzeko aukera izango du sari gisa. Ea noraino heltzen den aurtun.





Bilduko eta EAJko zinegotziak iraileko osokoan. | MIREIA BIKUÑA

Guardia Zibilaren kontrako mozioa onartuta

Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten herritar talde batek aurkeztutako testua iraileko osokoan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Guardia Zibilaren kontrako mozioa aho batez onartu zuten irailaren 28an egindako osokoan. Herritar talde batek aurkeztutako testuari baiezkota eman zioten Bilduko eta EAJko zinegotziek.

Han zeuden herritarrek "pozik" hartu zuten udalbatzak hartutako erabakia; batez ere, EAJk baiezkota eman izana. Lourdes Idoiagak esan zuen ez zeudela "ados" testuan jasotako esaldi batzuekin, baina "alde bozkatuko" zutela.

"Presentzia itogarria"

Herritarrek aurkeztutako mozioan esaten da "Guardia Zibilaren presentzia itogarria" dela eta horren

aurrean bost puntuko mozioa aurkeztu zuten: alde batetik, eskatu zuten Guardia Zibilek azken asteotan Oñatiko mendietan eta beste hainbat lekutan egindako miaketak bukatzea; beste alde batetik, "bake eta normalizazio politikorako prozesu demokratikoa garatzeko euskal herritarren kontrako errepresio mota guztiak baztertzeko" eskatu zuten; eta, gainera, "Espainiako Estatutik etorritako gorputz militarrek eta polizia Euskal Herriatik alde egiteko" eskaera onartu zuten.

Manifestazioa Oñatin ez

Mozioak Guardia Zibilak Oñatin egiteko asmoa zuen manifesta-

zioaren gaineko puntua jasotzen zuen. Baina Guardia Zibilaren elkarteak esan du ez dutela Oñatin manifestaziorik egingo. Gasteizen bilduko dira, Eusko Legebiltzarraren aurrean. Sindikatuen hitzetan, elkarteko ordezkari batzuk Oñatiko kuartelera joango dira, baina ez dute han elkarretaratzetik egingo.

Horren harira, herritar batek hitza hartu zuen osokoan, eta esan zuen manifestazio horren aurrean adostutako ekintzak bertan behera uzten dituztela, oraingoz. Herri batzar irekia deitu zuten kideak urriaren 11n bilduko dira berriro ere, mobilizazioekin jarraitzen duten edo ez erabakitzeko.

Herriko futbol txapelketan parte hartzeko deialdia: izen-ematea etzi, urriaren 5ean, Aloñaren egoitzan

Herriko futbol txapelketaren 2011-12 denboraldian parte hartu gura duten taldeek etzi, urriaren 5ean eman beharko dute izena Aloñaren egoitzan, 19:00etatik 19:30era arte. Talde bakoitzak jokalarien nortasun agirien fotokopiak aurkeztu beharko ditu (gehienez 25 eta gutxienez 15), eta 250 euro. Horietatik, 100 euro taldeak izan ditzakeen isunak ordaintzeko gordeko dituzte.

Pake Lekun antolatuko ikastaroetako batzuk asteon hasiko dituzte erretiratuen elkarteak

Pake Leku erretiratuen elkarteak hainbat ikastaroren deialdia egin zuen irail hasieran. Izen-ematea bukatuta, asteon hasiko dituzte eskolak. Solfeo eta gurutze-puntua eguaztenean hasiko dituzte; areto-dantzak, abesbatza eta puntu-lanak eguenean; euskara ikastaroa hilaren 10ean; eta bitxigintza 18an. Gainerako ikastaroen hasiera datak zehaztu barik dituzte.

Argentinako elkartasun taldeak ez du materialik batuko 31. edukiontzia kargatu eta bidali arte

Argentinako elkartasun taldeak ez du material gehiagorik batuko, oraingoz. Bidebarrieta kaleko lokala eta edukiontzi zuria itxi beharra izan dute. Asteon kargatu behar zuten 31. edukiontzia, baina, Argentinan inportazioak egiteko araudian aldaketak egin dituzte, eta arazoa konpondu artean ez dute material gehiagorik batuko.

Arrasate-Oñati lasterketako izen-ematea eguenean itxiko dute eta proba urriaren 8an egingo dute

Antxintxiketan taldeak antolatuta, domekan, urriaren 8an, egingo dute 28. Arrasate-Oñati lasterketa. Izen-ematea bukatzeaz dago: eguenean, urriaren 6an, bukatuko da. Interesatuak www.kirolprobak.com atarian eman dezakete izena. Webgune berean dago probaren gaineko informazioa eta araudia. Gehienez, 625 korrikalari onartuko dituzte.



SUSANA ARRESE



MIREIA BIKUÑA

Margo lehiaketako lan onenak ikusgai kultura etxean

Oñatiko Margo Taldeak antolatutako ageriko pintura lehiaketan egindako margolanak ikusgai daude kultura etxean, urriaren 14ra arte, 18:00etatik 20:00etara. Besteak beste, ikus daitezke maila bakoitzean saria lortu duten koadroak: nagusien mailan Anton Urrestik irabazi zuen eta gazteen mailan, Ines Uriarte oñatiarrak. Era berean, erakusketan daude Margo Taldeak urtean zehar egindako ikastaroetan margotutako koadroak.

Masterreko ikasleak Oñatin

Lege Soziologia Institutura masterra egitera etorri diren ikasleak Antia jauregian daude. Hilaren 27an egin zieten ongietorri festa. Han elkartu ziren *Friendship* programan parte hartuko duten herritarrekin. Apirilera arte Oñatin egongo dira, eta tarte horretan askotariko ekintzak egingo dituzte elkarrekin. Herriko ikastetxeetako ikasleekin ere hartu-eman zuzena izango dute.

Bidali zure

MODA_{ko} Argazkia

centrocomercialgorbeia.com
web-orrrira eta

1.500€

irabazi ahal izango
dituzu saritan*

1 Erosi 20€-tik gorako artikulu bat Gorbeia Merkataritza Parkean moda eta osagarrien edozein establezimendutan.

2 Egin zaitetz argazki bat artikuluarekin, eta eseki centrocomercialgorbeia.com web-orrian.

3 3 argazkirik onenek 500€-ko sari bana jasoko dute erosketa-txarteletan.



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

2011ko Irailaren 30etik
urriaren 31ra

(*): Ikusi oinarriak gune honetan:
www.centrocomercialgorbeia.com

KIROLA



Fernando Llorente Athleticen bigarren gola ospatzen. Realeko jokalaririk De la Bella eta Demidov, etsita. | ARGAZKI PRESS

LEHENENGO MAILA

Fernando Llorenteren golek erabaki zuten derbia Athleticen alde

- Lehen zatia bilbotarrek kontrolatu zuten, eta bigarrenaren lehen ordu erdia Realak
- Athleticcek denboraldiko lehen garaipena lortu zuen atzo Anoetan

EMAITZA

REALA

1-2

ATHLETIC

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Bigarren zatia hasieran Realak berdinketa lortu eta joko onena erakutsi zuenean, Fernando Llorentek egin zuen Athleticendako bigarren gola, eta Anoeta isilik eta hotz geratu zen. Hura izan zen atzoko derbiko protagonista nagusia.

Dena den, ezin dugu aipatu barik utzi Iñigo Martinezek egindako gola. Zelai erditik bota zuen baloia Iraizoz aurreratuta zegoela ikusita. Gola Cristiano Ronaldo edo Messik sartu izan balute, gaur portada izango litzateke

kirol egunkari ezagunenetan eta albistegi guztietan.

Zuri-gorriak hobeto

Arnasa hartu eta lasaitzeko puntuak batu zituzten bilbotarrek Donostian. PSGren kontrako norgegiagokan itxura ona eman zuten, eta atzo Anoetan ere bai, batez ere lehen zatian. Partiduaren erritmoa kontrolatzeko gai izan ziren, eta Realak baino agresibitate maila handiagoa erakutsi zuten atsedeneren aurretik.

Bi gol aukera garbi izan zituen Athleticcek lehen zatian: lehenengo minutuan De Marcosek baloia zutoinera bidali zuen; eta, 25.ean Muniain bakar-bakarrak geratu zen Bravoren aurrean, eta Txileko atezainak geldialdi bikaina egin zuen.

Fernando Llorentek 35. minutuan egindako gol onari esker, abantailarekin joan zen Athletic atsedenera, Realak baino irudi hobea emanda.

Berdinketa eta Athleticen 2.a

Bigarrenan baina, txuri-urdinak erasoan irten ziren. Zelai erditik aurrera presio itogarria egin zuten. Ondorioz, berdinketa egin

zuen Iñigo Martinezek 60. minutuan. Partiduari buelta emateko aukera ere izan zuten Griezmannek eta Agirretxek jokaldi berean egindako erremate bikoitzari esker.

Athletic bere zelaian sartuta zegoen, eta bazirudien Realak bigarrena egingo zuela, baina kontraraso baten Llorentek bigarrena egin eta partidua erabaki zuen.



ANTON ELORTZA
ATHLETIC ZALEA

"Oso pozik nago, batez ere Donostian irabazi dugulako. Hiru golak ederrak izan dira, baina oraingoan ere Llorentek erabaki du. Jokalari handia da, eta erakutsi du".



BIXEN CALZON
REAL ZALEA

"Bigarren zatian Realak ondoen zegoenean, defentsan huts egin dugu eta Llorentek egin du bigarrena. Anoeta ia beteta eta giro aparta egon da".



FELIX IRIZAR
ATHLETIC ZALEA

"Pozik nago. Dena den Jabi Martinezek atzean jokatu eta sendo egon gara, baina zelai erdian sormena falta izan zaigu. Defentsa baino aurrerago jokatu beharko luke".



BITTOR ARRIARAN
REAL ZALEA

"Bigarren zatiko lehen ordu erdian oso ondo jokatu dugu. Akaso emaitza justuena berdinketa zen. Entrenatzaileak beranduegi egin ditu aldaketak".

URRIKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

DANBAKAKO KAMISETA

Bidali Kluba **KAMISETA**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



LIBURU SORTA UMEENTZAT

Bidali Kluba **LIBURUAK**
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



MALETATXOA (TROLLER)

Bidali Kluba **MALETA**
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



PENDRIVE BAT

Bidali Kluba **PENDRIVE**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



ZINERAKO SARRERAK



Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.
Bidali Kluba **SARRERAK**
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra



2011n atera etekina txartelari



TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15

- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

ETA HAUETAN ERE BAI



OHOREZKO ERREGIONALA

Punteria hobea izan zuenak irabazi zuen Mojategin jokatuako derbia

- ▶ Mikel Gonzalez eta Mikel Zabalak egin zituzten Modraren golak
- ▶ Joko eskasa egin zuten bi taldeek partidu osoan zehar

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Mikel, Aitor, Alain, Kepa, Iregi, Zabala, Gonzalez (Txonan, 80. min.), Moreno (Jon, 54. min.), Andoni (Xabi, 71. min.), Oier (Unai, 86. min.) eta Markel (Alvaro, 91. min.).

Bergara: Lopez, Urutia, Arruti, Elorriaga (Retes, 46. min.), Arazkonaga, Ugarte (Etxeberri, 55. min.), Crespo (Ugalde, 66. min.), Oregi, Macho, Baltzategi eta Cabanillas (Ayud, 55. min.).

Epailea: Casanova jaunak zuzendu zuen Mojategiko partidua.

EMAITZA

MONDRA
2-0
BERGARA

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Beroari aurre eginez, atearen aurrean punteria hobea izan zuenak irabazi zuen Mojategiko derbia. Mondrako aurrelariak ideiak garbiago izan zituzten Lopez atezainaren aurrean eta hiru puntuak irabazi zituzten.



Andoni Azpitarte arrasatearra eta Aitor Iregi bergararra baloiarekin lehian, beste jokalariek batzuen artean. | JULIO CALLEJA

Joko eskasa

Ikusle asko batu zen Mojategin Mondraren eta Bergararen arteko lehia ikusteko, eta aspertu egin ziren. Joko aldetik itxura eskasa eman zuten bi taldeek. Hasierako minutuetan zelai erdiko jokoa izan zen nagusi. Balo luzeekin saiatu ziren hasieran bi taldeak, aurrelariak zuloen bat topatuko zuten esperantzarekin.

Lehen zatian gol aukera gutxi izan zituzten. Lehen jaurtiketa

Bergarak egin zuen 23. minutuan, baina Mondrak izan zituen garbienak. Batez ere, 43. minutuan Morenok izan zuena. Jaurti eta defentsan jo ostean, baloia desbideratu eta atezainak egundoko geldiketa egin zuen.

Bi golak bigarrenean

Bigarren zatian hasieran, 54. minutuan, egin zuen gola Mondrak, eta partidua ia erabakita utzi zuen. Mikel Gonzalezek baloia area ertzean hartu zuen, eta jaur-

tiketa indartsua bota zuen atezainaren eskuineko zutoinaren ondora.

Gol hark min handia egin zion Bergarari, eta minutu batzutan galduta ibili ziren zelaian. Mondrak lehia erabakita uzteko aukera izan zuen 65. minutuan. Mondrako atezainak baloia luze atara zuen, eta Bergarako defentsaren aurrean bote egin zuen. Andoni atezainaren aurrean bakar-bakarrik geratu zen, baina baloia kanpora bidali zuen.



IÑIGO MACHO
BERGARAKO JOKALARIA

"Puntu barik goaz etxera. Hasieran berdinduta ibili gara, baina Mondraren golak min egin digu. Joko aldetik ez da lehia ikusgarria izan. Lanean segi beharra daukagu, liga luzea da-eta".



UNAI IGLESIAS
MONDRAKO 2. ENTRENATZAILEA

"Taldeak gogoia zuen derbia jokatzeko eta irabazteko. Ez da partidu polita izan ikusleentzako, baina gu golekin eta puntuekin geratzen gara. Puntu onak dira guretako".

Sei minutu geroago, 71.ean, bigarrena egin zuten arrasatearrak: Mikel Zabalak bikain errematatu zuen eskuinetik egindako erdiraketa.

Bigarren golarekin Bergarak bukatutzat eman zuen norgehiagoka. Mondrak hirugarrena egiteko aukerak izan zituen.

Bukaeran, pozik zeuden arrasatearrak, eta burumakur mahoneroak. "Lanean jarraitu behar dugu, liga luzea da-eta", esan zigun Bergarako Iñigo Machok.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hamargarren minuturako 2-0 aurreratu zen Aloña, baina ia galdu egin zuen partidua

Azkargortaren hitzetan: "Bigarren zatian negargarri jokatu dugu"

EMAITZA

ALOÑA MENDI
2-2
BETI GAZTE

M.B. | OÑATI

Oraindik ez dio neurria hartu Aloña Mendik 2011-2012 denboraldiari. Eskura izan zuten oñatiarrek denboraldiko lehen garai-pena zapatuan, baina ez zuten lortu. Bi goleko errenta izan zuten, eta ia galdu egin zuten.

Bigarrenean "negargarri"

Beharrezkoak zituen hiru puntuak Aloña Mendik eta intentsitate handiarekin zelairatu zen. Tentsio horren ondorioz 10. minuturako 2-0 zegoen aurretik: lehen gola bigarren minutuan egin zuen Iker Olalde penaltiz; eta bigarrena, zortzigarrenean, Julen Palaciosen.

Abantailarekin, lasaiago jokatu zuten Azkargortaren mutilek. Lehen zatian nagusitasuna erakutsi zuten.

Baina, bigarrenean, oñatiarrek azken partiduetako aurpegia erakutsi zuten: defentsan urduritasun handia erakutsi zuten. Akatsak egin zituzten atzeko lerroan. Hori horrela, berdinketa lortu zuen Beti Gazte.

"Bigarren zatian negargarri jokatu dugu. Lehenengoan egindako lan guztia pikutara bidali dugu. Asteaz zehar lana ondo egiten dugu, baina aste bukaeratan ez dugu maila bera ematen", esan zigun Azkargortak.



OHOREZKO ERREGIONALA

JULIO CALLEJA

Joko ona egin, baina UDAk ezin

Aretxabaletak etxean partiduak irabazi ezinda segitzen du. Atzo lehia ona jokatu zuen, batez ere bigarren zatian, baina ezin izan zuen irabazi. Atezainak egindako huts batetan egin zuen lehen gola Oartzunek. Bigarrenean asko estutu zuen UDAK baina, ezin izan zuen berdinketa egin. Kermanek, Perezek eta Haritzek aukera garbiak izan zituzten. Kontraerasoan erabaki zuen Oartzunek.



Aloña jokalaririk Ander Mendoza baloia lapurtu guran. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

Omenduendako oparirik onena, garaipena

Bigarren mailako lehen puntuak eskuratu zituen Mondrak, ondo jokatuta

EMAITZA

MONDRA
2-0

ATLETICO REVELLIN

IRATI GOITIA | ARRASATE

Domekan, 12:00etan, Anoetan derbia jokatu zen, baina ordu berean Mojategin beste partidu bat ere bazen. Mondrako neskek Logroñoko Revellin taldea hartu zuten. Norgehiagoka orekatua eta gogorra izango zela zirudien, baina ez zen horrela izan, etxekoak askoz hobeto jokatu zuten.

Lehen zatian erabaki zen dena

Mondrako neskek ondo kokatu irten ziren zelaira eta lehen minututik jokatu zuten gogor. Horrela, laster etorri ziren aukerak eta golak. Maitane Roak azkar eman zion lehen abisua arerioaren atezainari, izan zuen lehen aukeran. Hurrengo jokaldian gola egin zuen (20. minutuan).

Bigarren gola ere laster etorri zen, 35. minutuan. Maitane Roak atzelariengandik ihes egin, atezainaren aurrean Ane Beraza taldekidea bakarrik ikusi, berari pasa eta gola.

Mondrak behin eta berriz sortu zuen arriskua Revellinen arean, baina kanpotarrek lan gutxi eman zitoten Arrasateko atezainari.

Bigarren zatia oso txarra

Revellingo jokalarien erritmo motela itsatsi zitzairen Mondrako jokalariei bigarren zatian. Ez zen joko onik ikusteko aukerarik izan. Bi eta hutseko abantaila izanik, etxekoek markagailuari eusteko lanak egin zituzten eta arrisku gutxi sortu zuten.

Entrenatzaileek gainontzeko jokalariei minutuak emateko aprobetxatu zuten.



Mondrako jokalariek gogor jokatu zuten. | JULIO CALLEJA

ROSI OTADUI ETA ROMAN LOPEZ | NESKEN FUTBOL TALDEKO SORTZAILEAK

"Hasierak zailak izan ziren, irabaztea latz egiten zitzaigun-eta"

Mondrako nesken futbol taldea sortu zela 25 urte bete dira, eta sortzaileek (Rosi Otadui *Katangari* eta Roman Lopez) omenaldia jaso zuten domekako partitua hasi baino lehen. Omenduei pasilloa egin zieten lehenik, aurrekoa dantzatu ondoren, eta, azkenik, oroigarriak eman zizkieten (taldeko kamiseta euren izenekin, lore sorta, eta txapela Lopez eta zapia *Katangari*).

Hunkituta ikusi genituen biak, batez ere Lopez: "Oso pozik eta hunkituta nago, ez dut inoiz horrelako omenaldirik jaso. Askok eskertzen dut nik eginiko lana horrela saritzea. Hau antolatu duten guztiak eskertu nahiko nituzke". *Katangari* bestalde, orain dela 25 urte futbol taldean jokatzeko hasi ziren neskek izan zituzten gogoan: "Nik uste dut omenaldia orain dela 25 urte baloiari ematen hasi zirenek merezi dutela nik baino gehiago". Ildo beretik, Lopezek nesken taldea sortzearen ideia nork izan zuen argitu zion: "Izaskun Herizena izan zen neska taldea osatzearen ideia eta niregana etorri zen laguntza eske. Nik Gipuzkoako federaziora deitu nuen eta posible zela esan zidaten. Horrela ekin genion bideari. Egunkarian deialdia



Rosa Katanga eta Roman Lopez. | IRATI GOITIA

jarri nuen eta izena emandako nesken artetik aukeraketa egin nuen gero. *Katangari* eskatu nion entrenatzaile laguntzaile izateko, eta lehen unetik azaldu zen prest".

Katangari hasierako garaiak gogorrak izan zirela esan zion, batez ere, irabaztea asko kostatzen zitzaielako. Egungo nesken taldeak maila dezente hobea duela dio. Lopez iritzi berekoa da.



Rosi Otadui eta Romak Lopez omendu zituzten. | JULIO CALLEJA

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

**Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 Posta-e: rleniz@euskalnet.net

SASKIBALOIA

Denboraldiko lehen partiduan ezin garaipena lortu Larreategiren mutilek

Zarautz gehiago izan zen lehen zatian; bigarrenean arrasatearrak hobeto ibili ziren

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

70-76

LEIHOAK ZARAUTZ

IRATI GOITIA | ARRASATE

Denboraldia ez du ongi hasi Mondragon Unibertsitateak. Zapatuan etxean jokatu zuen Zarautzen aurka eta kanpoko taldea hobeto aritu zen. Batez ere lehenengo bi laurdenetan. Izan ere, arrasatearrak gaizki ibili ziren lehen zatian, intentsitate falta handia izan zuten. Taula azpian errebotte asko lapurtu zizkieten zarautzarrek eta kanpotarrak fin ibili ziren kontraerasoan; Larreategiren mutilak berriz, defentsan makal samar. Horrela, diferentzia ederra eskuratu zuen arerioak; 29 eta 45eko markagailuaz burumakur joan ziren arrasatearrak aldagelatar.

Atsedendiarekin berpiztu

Gogotsu ekin zioten MUko jokalariek hirugarren laurdenari; intentsitatean asko hobetu zuten. Hala, Zarautzen eraso gelditzea lortu zuten eta saskiratzeetan abilezia gehiago erakutsi zuten. Aldea hiru puntura gutxitzea lortu zuten. Hala ere, laurdenaren bukaera adierazi zuen tinbrearekin batera Zarautzko jokalaria batek kantxaren erditik baloia jaurti eta hiruko ikusgarria lortu zuen. Saskiratze horrek min egin zuen Larreategiren mutilen aldarlean, eta baita markagailuan ere (50-58).

Laugarren laurdenean ere nahiko ondo ibili ziren etxekoak. Arrasatearrak saiatu ziren partidua berdintzen, baina ezin. Amaierarako 2 minutu falta zirenean 2 puntukoa zen aldea. Azken txanpan baina, kanpotarrak hobeto ibili ziren eta etxekoak huts egin zuten hiruko jaurtiketetan. "Maldan gora egin zaigu hasierako aldea" esan zigun Larreategik partidua amaieran.



Mikel Arejolaleiba MUko jokalaria Zarautzko defentsa gainditu nahian. | JULIO CALLEJA

JOSU LARREATEGI | ENTRENATZAILEA

"Denboraldia txarto ikusten dut gaurkoaz, baina denboraldi-aurre ona egin dugu"

Nolakoa aurreikusten duzu aurten go denboraldia?

Ez dut oso ondo ikusten. Denboraldi-aurreko partiduetan gaur baino askoz hobeto ibili gara. Nik ez nuen espero intentsitate aldetik hain txarto egongo ginenik. Hori izan da gaurko gakoa; intentsitate eta esfortzua ez dakit non utzi ditugun. Gero bigarren zatian eman dugu barruan genuen guztia, baina ez da nahikoa izan. Ez dut ulertzen zela ibili garen horrela, eta gainera gure etxean.

Sailkapenean non ibiltzea espero duzue?

Gure multzoko taldeak oso indartsuak dira eta *Leb* platak jokalariek ere badira aurten lehen nazional mailan; eskarmentu askokoak dira, guretzako hori erronka handia da. Gure jokalariek oso gazteak dira.

Taldea nola ikusten duzu?

Gorka Quintana aurten ez dago gurekin, Aloñak fitxatu du, eta bosteko titularretik bi jokalariek lesionatuta ditugu. Hori igartzen da gure jokoa. Hala



Josu Larreategi. | IRATI GOITIA

ere, daudenek denboraldi-aurre lan bikaina egin dute eta oso ondo ibili gara aspektu guztietan, batez ere defentsan. Ondo ikusten dut taldea. Espero dut hurrengo partiduetan hobeto ibiltzea.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik irabazi egin zuen Gasteizen eta Bergarak galdu, Urdulizen kontra

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Oso bestelako emaitzak izan zituzten aste bukaeran eskubaloiko lehenengo mailan diharduten gure taldeek: Ford Mugarrik irabazi egin zuen 24-34 Corazonistasen kontra; eta, Bergarak galdu Urdulizen, 30-21.

Lehen ordu laurdenean

Soraluze BKEk ez zuen aukerarik izan partidua irabazteko. Lehen ordu laurdenean egin zion aurre Urduliz taldeari. Handik aurrera bizkaitarrak nagusitu ziren kantxan. "Erasoan motel ibili gara, eta jaurtiketa garbiak huts egin

ditugu atezainaren aurrean", dio Josetxo Muniategik. Atsedenean 16-9 zen aurretik Urduliz.

Bigarren zatian hasieran 4-leko partziala jaso zuten kontra bergararrek. 20-10eko atzerapenarekin ez zuten aukerarik izan lehiari buelta emateko.

Bestalde, Ford Mugarrik arazo barik irabazi zuen Corazonistasen kontra. Gasteiztarrek baja batzuk zituzten, baina Ane Herroren taldeak arazo jarri irabazi zuen. "Partidu ona jokatu dugu", esan digute.

MENDI LASTERKETAK

Oihana Kortazarrek Anbotoko kilometro bertikaleko proba irabazi eta errekorra ondu zuen zapatuan

Oihana Kortazar elgetarrak ez dauka mugarik. Mendiko lasterketen munduko txapelketa irabazi ostean, zapatuan, Atxondon Anbotoko kilometro bertikala irabazi eta errekorra ondu zuen: 47.10eko denbora egin zuen Ana Conde eta Izaskun Zubizarretaren aurretik. Gizonezkoen proban ere errekorra ondu zuen Marco Di Gasperik (37.14).



Kortazar Anboton. | XABI URTZELAI

PILOTA

Altuna-Tolosa eta Yoldi-Linzoain nagusi Oñatin

Atzo jokatu zituzten San Migel pilota txapelketako finalak. Gazte mailan 22-13 nagusitu ziren Altuna-Tolosa, Zelaia-Imazen kontra. Senior mailako partidua zortzigarren tantoan bukatu zen. Telletxeak min hartu zuen, eta lehia utzi zuen 8-0 galtzen zeudela. Yoldi eta Linzoainek jantzi zituzten txapelak.



JULIO CALLEJA



MENDIKO BIZIKLETA

JULIO CALLEJA

Bizikleta martxa Aspanogirekin

Aspanogik antolatutako bizikleta martxa egin zuten atzo Bergaran. Eguraldiak lagun, parte-hartzaile asko batu zen 09:00etan Agorrosinen. Bi ibilbide zituzten aukeran: motza, 28 kilometrokoa, eta luzea, 37 kilometrokoa. Norberak aukeratu zuen ze ibilbide egin gura zuen. Gustura bukatu zuten guztiek.

PILOTA

Beñat Rezusta | Bergarako pilotaria

"Pilota edozerekin da bateragarri, baita parranda egitearekin ere, neurritz bada"

- ▶ Afizionatu mailara salto egin duen urtean hainbat torneo irabazi ditu
- ▶ Ezker esku ona du, baina eskuinarekin lan handia egin behar duela aitortu digu

XABIER URTZELAI | BERGARA

Senior mailan ordezkari zabaldu du Bergarako pilota taldeak, eta Beñat Rezusta (Bergara, 1993) da talde horretara indarrez iritsi den azken pilotaria. Afizionatu mailara salto egin berri, besteak beste, Antiguoko eta Egiako torneoak irabazi ditu.

Duela hiru urte pilota lehenetsi zenuen, eta futbola baztertu. Normalean alderantziz izaten da.

Bai, baina gusturago ibiltzen nintzen pilotan futbolean baino, baita hobeto defendatu ere. Futbolearen aurrelari postuan jokatzeko nuen, eta pilotan ere hala hasi nintzen, naiz eta azken urteotan atzera pasa naizen.

Afizionatu mailako lehen urtea kategoriara egiteko urtea izaten da. Zuk, berriz, hainbat torneo irabazi dituzu.

Bai, urte oso ona izan da, baina irabazi ditudan torneoetan 20 urtez azpikoen kategoriakoak izan dira gehienak, ez nagusienak. Gutxi gorabehera nire adineko jendearen kontra jokatu dut.

Eta ze alde dago, bada, nagusiekin jokatzeko?

Indarrean badago aldea, baina hori baino gehiago, beteranotasuna igartzen zaie ez dutelako tantoetan kale egiten. Eman eta eman ibili arren, atzelari on batek pilotakada guztiak itzuliko dizkizu, norberak kale egin arte.

Zer nolako pilotaria zara?

Partiduetan nahiko lasai egoten naizela esango nuke, eta ezker esku ona daukadala. Baina, eskuin eskuarekin asko hobetu behar dut, makal nabil hor.

Ezkertiarrok abila izaten zarete esku onarekin, baina eskuina erabat ahaztuta izaten duzue.

Eskuinarekin jokatzeko duten pilotarietako derrigor landu behar izaten dute ezker eskua, pilota hormatik gertu dagoenean ez dagoelako eskuinarekin jotzerik. Baina, ezkertiarrok horma ondoan abantaila hori dugu, eta pilotakada eskuin aldera datorrenean gehiago zabaltzen gara, ezker eskuarekin jokatzeko jarraitzeko.

Makalune hori bilatu nahian, aurrelarietako zabalera egiten al dizute sakea?

Gazteagotan ez, gaztetan ez dugulako horrenbeste malizia izaten, baina aspaldian aurrelari batek baino gehiagok egin dit hori, partidu osoan sakea txokotik egin, alegia.

Eta, onartu behar dut entrenamenduetan eskuinarekin ondo moldatu banaiz, baina partiduetan horrelako sakeekin min egi-



Beñat Rezusta, Bergarako pilotalekuan. | XABIER URTZELAI

ten ari direla ikusten dudanean urduri jartzen naizela. Hori da, esaterako, hobetu beharreko beste kontuetan bat.

Pilotalekuak horma zurikoak, berdeak eta beltzak?

Bergarakoa beltzez margotu berri dute, eta nik gustuko dut horrela, oso txukun geratu da. Badirudi horma beltzean marka gutxiago egon behar direla, baina hasi gara konturatzen atzeko koadroetan entrenatzen dugunean hemen ere markak segituan egi-ten direla.

"Beltzez margotuta txukun geratu da Bergarako pilotalekua"

"Herrian maila horretako torneoak izatea eskertzeko modukoa da"

Baliteke hasieran jendeak pentsatzea hormak beltzez margotuta pilotalekua ilun samar geratuko zela, baina ez da hala izan, alde horretatik lehen moduan dago. Egia esan, nik pilotalekuko hormaren koloreari ez diot kasu larregirik egiten; aurrekoan, esaterako, urdinez margotuta dagoen pilotaleku batean izan ginen jokatzeko, eta han ere ez nuen arazorik izan. Baina, badakit pilotari batzuk keixatu egin direna, kolore urdin horrekin ez direlako ondo konpontzen.

Gustuko dozun pilotaleku bat?

Hau bera, Bergarakoa.

Klubean bertan ze giro duzue? Badatoz gazteak?

Badatoz, bai. Seniorretan bospasei pilotari gaude, eta egia esan, asko eskertzen da fundamentuzko entrenamendu saioak egin ahal izaten ditugulako. Herri batean bizpahiru pilotari baino ez baldin badaude nekezagoa da motibatuta ibiltzea, eta ondo entrenatzea. Eta horrekin batera, gaztetxoaren entrenamendu saioak ikusten ditudanean badaude etorkizunean pilotari txukunak izan daitezkeenak. Esaterako, Jokin Etxanizen semeek txukun jarduten dute.

Eta antolatu ere torneo ederrak antolatzen dituzue klubetik.

Hor pilotariok zorretan gaude Reyes Azkoitia eta txapelketak antolatzen ibiltzen diren klubeko gainontzeko kideekin. Pilotari asko kanpotik etorri behar izaten dira, esaterako, Bergara Hiria moduko torneoak jokatzera, eta guk etxean bertan ditugu. Gainera, azken urteotan afizionatu mailan geroago eta izen handiagoa dute hemengo txapelketek.

Herri Arteko txapelkun. Gertatuko da berriro ere?

Baietz espero dut, 2009an lortu bagenuen, zergatik ez aurreago? Egia da orain momentuan gazte eta kadete mailan ez ditugula pilotari asko, eta Herri Arteko txapelketa batean aurrean egoteko kategoria guztietan izan behar dira bikote onak. Baina, lehen esan moduan pilotari gaztetxo mordoak dabil hemen, eta horiek nagusitzen direnean...

Zerekin ez da bateragarri pilota?

Nik uste pilota edozer gauzarekin dela bateragarri, baita parranda egitearekin ere. Noski, neurritz egiten bada.

Gustuko pilotari bat?

Azken urteotan behera etorrita dago, adinean ere aurrera doalako, baina oraindik gozame- na da aurreko koadroetan jokatzeko ikustea. Titinez ari naiz.

Tako asko, ala gutxi jartzen duzue?

Pilotari batzuek atzamar puntatan ere trapua jartzen dute, eta nik ez dut halakorik egiten. Eskuan bertan, baina, tako dezentte jartzen dut.

Eta amaitzeko, pilota partidu bat pilotalekuan bertan, ala etxean telebista aurrean?

Egia esan ez naiz partiduak ikustera pilotalekuetara joaten den horietakoa. Partiduak gusturago ikusten ditut etxeko sofan eserita.

KULTURA

Bilduma onenaren saria irabazi du Ivan Vaz diseinatzaile aretxabaletarrak

Arabako moda astean aurkeztu du 12 soinekoz osatutako bilduma

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Aretxabaletarrak Arabako moda astean bilduma onenaren saria irabazi du sortzaile berrien kategorian. Egubakoitzean jaso zuen saria eta oso pozik azaldu zen errekonozimenduarekin. "Asko eskertzen dira horrelakoak; ia sei hilabetez aritu naiz lanean buru-belarri Gasteizen bilduma hau aurkezteko eta benetan gustura hartu dut" zioen saria hartu eta hurrengo egunean.

Vazek 12 soineko aurkeztu zituen moda astean. Cóctel soinekoak eta gaueko soinekoak, denak goi-mailako jantzigintza-koak. Horrela hitz egin digu bere bildumaz: "Aspaldiko garaiak gustatzen zaizkit eta aurkeztu dudana bilduma garai erromantikoan inspiratuta dago. Lazo eta



Ivan Vaz diseinatzailea eta saritutako bildumako bi soineko. | JULIO CALLEJA

enkaje asko erabili ditut eta jantziei ukitu modernoa emateko luzerarekin eta koloreekin jolas-tu dut". Hain zuzen ere, zuriak, beltzak, gorriak, berdeak eta beste hainbat kolore ere erabili ditu bere diseinuetan, eta gehienbat erabili ditu zetazko oihalak. Aurkeztutako 12 soinekoetatik gehienak propio egin ditu moda asterako, bakarren bat izan ezik. Gainera, prozesu osoa da berea; diseinutik hasi, tela moztetik pasatu eta jantzia bukatzera arteko pausu guztiak.

Moda astean aurkeztutako beste diseinuen gainean galdetuta, "gauza oso politak aurkeztu zituzten", esan zigun.

Madriren, diseinuan lanean

Sei urte pasatu dira Ivan Vaz diseinatzaileak mailetan hartu eta Madrilera egin zuenetik. Diseinua eta patroigintza ikasi zituen Gasteizen, ia kasualitatez, eta egun, bere bizitzaren erdigune eta oinarri bilakatu da diseinua. Bada, 31 urteko diseinatzaile aretxabaletarrak, *Pedro Del Hierro* eta *Cortefiel* firmentzat egiten ditu diseinuak, festarako eta *pret-à-porter* diseinuak, hain justu. Zorionak!

Organo erromantikoaren falta igarri bazen ere, kontzertu ederra egin zuten Bergaran

Aitor Olea organo-jotzaileak eta Bergarako Orfeoik Santa Marinan egin zuten kontzertua

MA | BERGARA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko XII. zikloari eman zitzaion hasiera zapatuan Bergaran herri-

ko Orfeoik eta Aitor Olea organo jotzaile durangarrak elkarlanean egindako kontzertuarekin. Aurten, Pedro Deunaren Parrokiako lanak

medio, bertako 1889ko Stolz Frères organo erromantikoa ez dago erabilgarri, eta lehenengoz, organo erromantikoaren zikloa Santa Marina Parrokian egin da. Santa Marinako organoa ez da organo erromantikoa, 1917ko organo bat baizik, eta horrek ekarri zuen halabarrez, kontzertuaren kalitatearen beherakada. Bestelakoan, ziklorako propio konpondu duten organoak nahiko ondo erantzun zuen, eta Aitor Olearen eta Bergarako Orfeoia lan ederrak musika maila handiko kontzertua entzuteko aukera eman zien Santa Marinan batutakoei.

Kontraste handiak

Bergarako Orfeoik eta Olea organo jotzaileak batera hasi zuten kontzertua, Garbiel Fauré frantziako konposatzaile erromantikoaren *Requiem en Re Menor* piezarekin. Pieza hau konposatzaile frantsesaren ederrenetarikoa bat bezala kontsideratzen da, aro erromantikoko pieza adierazgarriena, eta nabarmenezkoak dira *Introit in Kyrie* ariako baritonoaren bakarkako saioa eta *Pie Jesu* ariako sopranoarena. Zati horiek Bergarako Orfeoiko Carlos Etxanizek eta Nerea Ibarrek abestu zituzten, eta baita ederki egin

ere! Ondoren, Aito Olea organo jotzaileak bakarrik interpretatu zuen Franz Liszt hungariako konposatzaile erromantikoaren *Praeludium und Fuga über Bach* obra, organoaren indarra eta handitasuna agerian uzten zituena. Hona obra honek, abesbatzaren faltan, organoak eskaintzen dituen aukerez gozatzeko beta eskaini zuen. Organo erromantikoaren ezaugarri nagusienetarikoa bat da, orkestra bat irudikatzen sortuak izan zirela eta bigarren pieza horrekin argi geratu zen hori. Guztira bost pieza interpretatu zituzten kontzertuan, hiru Orfeoiaekin.



Aitor Biainen zuzendaritzapean, fin ibili ziren Orfeoik. | JULIO CALLEJA



Aitor Olea organo jotzailea erabat kontzentratuta. | JULIO CALLEJA

Eszenaratze indartsua eta esperantza, ilusioa eta etorkizuna aldarri 'Utopian'

Leo Bassik bere ohiko jarrera ironiko eta zirikatzailea erabili zituen Elgetan

MIREN ARREGI | ELGETA

Bi ordu iraun zituen saioan eta bere ohiko estilo zirikatzaile eta ironikoa baliatuz, egubakoitzean Elgetako Espaloia Kafe Antzokian bildu ziren 100 bat lagunak liluratu zituen Leo Bassik.

Komediante familia bateko kide, Bassirentzat entretenimendua ez da soilik plazerra edo dibertimendua, baizik eta bere familiaren zigilu izan den eta den izpiritu probokatzailez, aldarriak egitea. Aitzakia bat, egungo gizartearen hutsuneak eta batez ere eskuinaren eta eliza katolikoaren aurkako kritika gogorak egiteko.

Eta hala, Elgetan eskaini zuen *Utopia* ikuskizunean, aldarrikatu zituen besteak beste klase kontzientzia, bere iritziz gainbeheran dagoena bereziki ezker ideologian eta Europan lehen Mundu Gerra ezker; kritikatu zuen baita ere generazio berrien kritikarako gaitasunik eza eta aldarrikatu zituen homosexualen eskubideak.

Traje beltzetik pailazo zurira

Traje beltzaz jantzita hasi zen bere hausnarketak zorrotztasunez eta ironiaz plazaratzen. Gero baina, bere aita, aitona eta familia komediante guztiari omen eginez, pailazo zuriaren jantzia ipini zuen.



Leo Bassi bere "ahate-jainkoa" atzean duela. | JULIO CALLEJA

Kontu handiz pintatu zuen aurpegia zuriz, eta jantzi zuen 1789an, bere familiak erabiltzen zuen pailazo zuriaren jatorrizko jantziaren erreplika. Bere arbaso komediantek ikusleei ilusioa eta baikortasuna helarazten zieten bezala, berak,

bere *Utopia* ikuskizunarekin, gizarteak ilusioa eta esperantza galdu dituela eta jainko sinesgarri baten beharra duela ere aldarrikatu zituen, gazte eta heldu liluratu dituen eta argazkiak agertzen den ahatea izango ote jainko sinesgarria?

Ipuinak kontatzen ikasteko tailerra Virginia Imazen eskutik Antzuolako

M.A | ANTZUOLA

Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek eusten dio duela urte batzuk hasitako proiektuari. Bizitza ulertzeko bere filosofia klownaren barruan, jendea zoriontsu egitea eta ahal den neurrian kezka alde batera uzten ikasten laguntzea dira helburuetako batzuk. Hori helburu, urteak dira klown ikastaroak eta bestelakok antolatzen dituela.

Honako honetan, eta aurrez Bergaran egin bezala, ipuin tailerrak eskainiko ditu 14 urtetik gorakoei zuzenduta Antzuolan, Lizarraga auzoko Laskurain Aundi base-

rrian. Lehenengo saioa oraingo domekan, urriaren 9an izango da aipatu tokian, 10:30etik 21:00etara.

Izen ematea zabalik

Ahozko kontaketa izango da tailerraren oinarria. Ipuinak nola kontatu, ahotsa nola erabili, gorputz adierazpena, eta ipuin horrek publikoarena iristeko beharrezko dituen ezaugarrietan sakonduko dute.

Saioak bi hilabete behin izango dira, baina ez da derrigorrezkoa guztietan parte hartzea. Interesatuak, 607 204 503 deitu behar duzue izena emateko.


'Amantalen ahotsa' egubakoitzean Victoria Eugenia, 20:00etan

Espainiako gerra hasi zenetik 75 urte pasatu diren honetan, emakumeen begietatik garai haietan gertatu zirenak kontatuko dituzte ikuskizun baten bitartez. 'Amantalen ahotsa' ikuskizuna egubakoitzean izango da eta Debagoieneko lau emakumek eta Ain_1 taldeak parte hartuko dute.

Governors taldea estudioko hirugarren lana grabatzen dihardu

Mauka diskoetxearekin kale-ratuko dute eta irailaren 26an hasi ziren grabaketekin Usurbilgo Higain estudioetan Haritz Harreguyren eskutik. Estudioko lan hau taldearen hirugarrena izango da *Itxaron beharra ez da itxaropena* eta *Frenetikodrome* diskoen ostean.

HAUTSI ARRAUTZA-OSKOLA BOULEVARDEKO UDAZKEN MODAREKIN

JARRAITU  FACEBOOK-EN ETA

IRABAZI
EGUNERO 100€-KO
BALE BAT

BOULEVARDEKO EROSKETETARAKO



1. Bilatu facebook-en: www.facebook.com/elboulevard
2. Klikatu "atsegin dut".
3. Urriaren 1etik 31ra arte sartu "urrezko arrautzen oiloa" aplikazioan eta zorte on opa dizugu.

Estiloz beteta, ZUTAZ beteta.



www.el-boulevard.com • www.tublogelboulevard.com • 

Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



USHUAIA. Argentinara egindako bidaiari, Beagle kanalean egindako nabigazioan, Les Eclaireurs faroari ateratako argazkia. /Argazkia: Aitziber Soriano / Arrasate



TORREPELOSSA HONDARTZA. Stintinon, Sardiniako irlan, Torre Pelossa hondartzan. Aurtengo udan egongara paradisu hartan. Turkesa koloreko itsaso ederra ikusten da, eta itsasontziak gertu. Snorkela egiteko toki ezin hobea zen. /Argazkia: Oihana Hernandez / Bergara



BEGIRADA ZORROTZA. Tenerifeko Loro parkean, tigrebaten begirada zorrotza. /Argazkia: Juan Luis Elizaran



SAGARRAK. Aretxabaletako Izurieta auzoan, 2011ko irailaren 9an ateratako argazkia. /Argazkia: Ander Zubizarreta / Aretxabaleta




MIDI D'OSSAU. 2011ko irailean Midi d'Ossau mendia eta Ayousko lakua azaltzen dira. /Argazkia: Agotz Iturbe Murgiondo



SALTO ILUNABARREAN. Malen eta Maika salto egiten agertzen dira, Pirinioetan, Hautacamén, ilunabarrean. /Argazkia: Malen Gallastegi



ESKALATZEN. Sierra de Guaran, Rodellarren ateratako argazkia. Bertan, kagyb bat eskalatzen. /Argazkia: Mikel Velasco / Arrasate




BLANESKO HONDARTZA. Blanesko (Girona) hondartza, bertako gaztelutik aterata. /Argazkia: Nagore Egiguren / Arrasate



ALHAMBRA. Granadako Alhambra, San Nicolasen behatokitik aterata. Egutero behatoki hori jendez betetzen da arratsaldeko zortziak inguruan, ikusteko eguzki izpiak nola islatzen diren Alhambran. 2011ko abuztuaren 17an egindakoa. /Argazkia: Nerea Rozas Iregi / Arrasate



ATSEDEN HARTZEN. Gizon bat deskantsuan. Habanan ateratakoa da (Kuba), 2009an. /Argazkia: Maialen Hernandez



ILUNABARRA CUDILLERON. Asturiasen, Cudillero izenekoherrian, ilunabarra ikusten. /Argazkia: Miren Pedrejon / Bergara



KAPTUSAK. Argazki horiek 2009an Txilera egindako bidai baten ateratakoak dira, Atacamako desertuan. /Argazkia: Oskar Santiago / Bergara

VII. GOIENA LEHIAKETA



goiena.net/blogak/argazkiak



UREDERRA. Argazkia 2009ko abuztu bukaeran atera nuen, Nafarroako Urederra ibaiaren iturburuan. /Argazkia: M. Nieves Ortiz de Landaluze Paunero



ATXULO. Araotzen dagoen aitzuloari ateratako argazkia aurreko urteko irailean. /Argazkia: Eneritz Umerez



MIJASKO HONDARTZA. Mijasko kostan arratsalde egindako argazkia; bertan, pertsona batzuk agertzen dira, arratsalde-pasa egiten. /Argazkia: Maialen Gorostiza Gonzalez /Arrasate



ARRANTZAN. 2007ko abuztuan, Conileko hondartzan, iluntzean, bi gizonezko arrantzan dauden bitartean. /Argazkia: Gemma Orobengoa Hernandez. Arrasate




MUNDUA HANKAZ GORAI. Buruz behera jarrita, munduak beste ikuspegi bat eskaintzen du. /Argazkia: Esther Fernandez /Arrasate



ASILAH ILUNABARREAN. Asilah (Maroko) hondartzatik ateratako argazkia, ilunkeran. /Argazkia: Josu Albeniz Urrutia/ Aretxabaleta



BIZARGINA. 2011ko abuztuan Calcutako kaleetan (Indian) ateratako argazkia da. /Argazkia: Nerea San Miguel Bengoa /Bergara



EL PALMAR. El Palmar (Vejer de la frontera, Cadiz) hondartzan ateratako ilunabarra, bertako ingurua eta bertako belarrarekin jokatutako argazkia. /Argazkia: Olatz Romeo Navarro /Aretxabaleta



TXORIA ANAPURNAN. Txori txiki hau ez da Annapurnaren handitasunarekin beldurtzen. /Argazkia: Oihana Arietaleanizbeasko /Aretxabaleta



UTAH-KO ZELAIA. Eguzkia sartzeraz zihola kolore ederrak eman zizkigun Utahko zelai horrek. /Argazkia: Naiara Alonso /Bergara



ILUNABARRA UDANATIK. Abuztuaren 29an Udanan ateratako argazkia. Ilunabarra dela argi ikusten da eta Anboto eta Udaltx ikusten dira. /Argazkia: Konsuelo Errasti Alzelai




UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak



ERROMATARZUBIA. Cangas de Onisen (Asturias) ateratako argazkia. Bertan, erromatar zubi famatuaren ingurua, gaueko mugimendua ikusten da. /Argazkia: Juanjo Etxezarreta



IGERILEKUAN. Galiziako igerileku baten lasaitasuna. /Argazkia: Itziar Gardoki Legorburu



VAROSLIGET PARKEAN. Abuztuan ateratako argazki bat da, Budapesteko Varosliget parkean. Bertan, Budapesteko bertako neskato bat agertzen da. /Argazkia: Janire Lazkano



ORDESA. Ordesako parke naturalean aurreko urteko Abuztuan ateratakoak dira. /Argazkia: Aiora Umerez Altube / Oñati



ESKUJOKOAK. Karibeko Utilla izeneko uhartean, hondartza birjina baten, lagun bat eskujokoak egiten. /Argazkia: Alaitz Urrutia



DUBROVNIK. Aurtengo udan Dubrovniken ateratako argazkia. /Argazkia: Jose Ignacio Madariaga Lete / Bergara



MOTO-KARROA. Argazkia 2011ko abuztuan Sri Lankan ateratakoa da. Sigiriyako inguruetan moto-karroa. /Argazkia: Aitor Ortueta / Arrasate




UMEAK. Abuztuan, Paysanduko (Uruguai) kokaleku baten, bi ume. Atzeko aldean haien etxeak agertzen dira. /Argazkia: Iñaki Bolinaga / Arrasate.



LASAITASUNEZ GOZATZEN. Abuztuan ateratako argazkia. Lagosko Praia do Camillo hondartzan lasaitasunaz gozatzen. /Argazkia: Jone Muruamendiarriz / Bergara



KAIEN OINAK. 2011ko abuztuan Castello d'Empuriesko La Rubinan, kaien oinatzak hondartzan. /Argazkia: Xabier Calvo Oregi / Bergara



EIVISSAKO KALA. Argazkia Eivissako (Ibiza) kala baten aterata dago. 2011ko abuztuan ateratakoa. /Argazkia: Felix Sanchez Arrazola



UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak

Hauek dira irabazleak!

1



UDAKO ARRATSALDE BERO BATEAN / Yera Sanchez / Aretxabaleta

Argazkiaren konposizio orekatuaren banean oso ongi isolatuta dago argazkiko subjektu nagusia foku selektiboa era egokian erabiltuta.

2



IZAN ZORIONTSU GUZTIAREN GAINETIK / Maier Errasti / Aretxabaleta

Udako balioak transmititzea lortzen duen argazkia. Aukeratutako gaiaren, momentuaren eta argazkiaren tratamenduaren arteko oreka ongi ebatzia izan da.

3



AHATEKIN PASIATZEN / Gaizka Untzueta Irasuegi / Arrasate

Argazkiaren originaltasuna da saritu dena. Une eta toki egokian egonik umorea eta argazkilaritza uztartzeko gaitasuna baloratu da.

157 LEHIAKIDE

Aurten 157 lagunek hartu dute parte. Guztira, baina, 538 argazki jaso ditugu. Urtetik urtera lehiakide gehiagok parte hartzen dute: iaz baino 20 lagun gehiago animatu dira. Hala ere, gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman, askok merezi duzue-eta saria. Batzuk freskoak direlako; beste batzuk barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak ere jaso ditugu; baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua; horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

GOIENA POZIK

lazko erantzun zabalari eutsiz, zazpigarren edizio honek erakutsi du debagoiendarren artean finkatzen doala lehiaketa. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.

EPAIMAHAIA

Goiena komunikazio taldeko eta Bergarako KB Photoestudio argazki-dendako kideek osatu dute epaimahaia eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteon jasoko dute saria. Egubakoitzeko *Goiena* paperean izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera.

Sariak



1. saria

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



2. saria: Cantabriako bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatza-gako Gure Ametsa jatetxean.

Facebooken aldaketen aurrean erabiltzaileak protestan dabilta

- ▶ Facebook "izorratzeko" kanpaina abiatu dute Erresuma Batuan
- ▶ Legez, erabiltzaileak bere datuak ezagutzeko eskubidea du

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Asaldatuta ibili dira azkeneko astean Facebookeko erabiltzaileak: diseinu aldaketa, pribatutasunean ere aldaketak, begi zelatari asko dagoela, edonork ikus dezakeela edozer... Kexak nahiko zabaldu ta daude. Horren aurrean Facebook izorratzeko kanpaina abiatu dute Erresuma Batuan, gai-

nontzeko herrialdeetara zabaltzeko asmoarekin. Legea erabili dute gainera.

Datuak ezagutzeko eskubidea
Realbigfatty erabiltzaileak egin zuen proposamena Reddit sarean. Legearen arabera erabiltzaileek Facebookek gordeta dauzkan datuak eskatzea daukate, britai-

niar legediak babesten duen eskubide bat da hori, Estatu Batuetan ez bezala, eta eskaera hori egiteko modua azaltzen du erabiltzaileak. Facebookeko kontaktu orrian egin daiteke eskaera, legearen zerbakiari erreferentzia egin eta legeak Facebook behartzen du 40 egunetan erabiltzaileari bere datuak dituen DVDA

bidaltzera. The Guardian egunkariak dagoeneko jaso du albiste kontakutaz nola eskaerei ezin dieten aurre egin Facebookeko bulegoetan. Dagoeneko, eskaerak egin dituztenek jaso dituzte e-postak DVDA jasotzeko atzerapenak egongo direla azalduz. Espainiako legediak ere eskubide hori babesten du.



Aplikazioaren pantaila-irudia. | UHINBAK

Euskarazko 12 irrati entzuteko aplikazioa

Uhinbak izeneko aplikazioa eskuragarri dago Android eta iOSrako, doan

J.B. | ARRASATE

Euskarazko 12 irrati entzuteko aplikazioa garatu du Antxeta Irratiak FitBak enpresarekin batera. Berria Fundazioak 2010 urtean euskarazko hedabide proiektuak garatzeko beka irabazi eta honezkero deskargatzeko moduan dago Uhinbat bai iPhone zein Android sistema darabilten gailuetarako. Lehenengo deialdian 10 proiektu aurkeztu ziren. Bost lagunek osatutako epaimahaiak (Nagore Amondarain, Josu Amezaga, Andres Gostin, Joanamari Larrarte, Ana Ollo eta Martxelo Otamendik osatua) erabaki zuen Antxeta irratiak aurkeztutako proiektuari ematea beka.

Doako aplikazioa

Antxeta irratiak, Bilbo Hiria, Bizkaia Irratia, Euskalerrria Irratia, Euskal Irratiak, Hala Bedi, Ttakun irratiak, Txolarre, Xiberoko Botza eta Xorroxin irratiak dira entzun daitezkeenak. Bai Applen App Storetik zein Android Marketean doan eskura daiteke aplikazioa eta Internetarako konexioa beharrezkoa da, irratiaren streaminga hartzen baitu emisiorako. Irratiaren uhin-takota programazio guztia emittitzen du aplikazioak, 24 orduz, asteko egun guztietan. Aplikazioa erabiltzeko zehaztapen tekniko guztiak, informazio osoa eta deskargatzeko loturak Uhinbak.eu-n aurki daitezke.

Autistei komunikatzen laguntzeko aplikazioa atera du Poliklinikak

J.B. | ARRASATE

Hitz egiteko arazoak dituztenei laguntzeko softwarea garatu du Gipuzkoako Pliklinikak Orange Fundazioarekin batera. E-mintza, doan deskargatu daitekeen aplikazioa, egunerokoan komunitazeko tresna ematen dio garunean kalte ala autismoa daukan gaixoari eta hitzetan ipini, beste era batera adierazteko modurik ez duena. Piktogramen bitartez adierazten zaizkio gaixoari mezuak eta hitzak eta horrela, eguneroko gauzetan, komunikatzeko gaitasuna eman, modu erraz eta ulergarrian.

Piktogramen bidez

Tabletetara jaisti daiteke doan aplikazioa eta gaixoak berehala ikasten du zelan erabili eta nola adieraz dezakeen nahi duena.

Zenbait familiekin egin dute dagoeneko proba eta emaitzak ikusgarriak izan direla diote. Familian, gizartean eta eskolan errazago integratzea bilatzen da lanabes berri honekin. Orain arte gaixoen koaderno batekin egiten zutena erraztu eta aukera berriak eman gura dizkie, batez ere, autisten e-Mintza aplikazioak. Piktogramak eta errealitatea erraz lotzea da bilatzen dena.



Kindle berri eta, batez ere, merkea

Fire modeloa aurkeztu du Amazonek. Irakurgailu elektronikoetan tabletaren eta e-reader-en erdibidean dago Kindle Fire baina prezioak eman du zeresana modelorik oinarritzkoenak 72 euro balioko du-eta. Hardware hobetua eta nabigatzaile bikaina eskaintzen ditu.

Sonyk ere aurkeztu du bere tableta, Android sistemarekin

Egubakoitzean ipini zuen bere tableta salgai Sonyk, 15 herrialdetan. Bi modelo dauka Table S eta Table P. 9,4 hazbeteko pantaila dauka modelorik oinarritzkoenak eta 600 gramoko pisua. Modelorik merkeenak 479 euro bala du baina 4 GBeko biltegitratzeko halmena besterik ez dauka. Garestienak 599 euro balio du.



Sonyren tableta. | SONY

Youtube euskaraz dago jada, guztiz itzulita eta erabilgarri

Hizkuntza aukerak aldatu ala nabigatzailea bera euskaraz ipinita ikusi daute bideoen webgunerik ezagunena euskaraz. Aurreko urtean itzuli zuten katalanez eta orduetik euskal erabiltzaileak euskarazkoaren zain zeuden. Bada, euskarazko bertsioa aurreko astetik dago erabat itzulita eta atal guztiak euskaraz ikusi daitezke honezkero.

Telebista kateak eskainiko ditu Youtubek 2012an

Dozena bat telebista kate eskainiko ditu Youtubek 2012-tiur aurrera. The Wall Street Journal egunkariak esandakoaren arabera. Ez dute argitu Estatu Batuetatik kanpo zerbitzua eskaintzeko asmorik baduten baina aurerratu dute kalteek programazioa eta ordutegiak izango dituztela, telebista kate tradiziobalen eskaintzaren antzera.


Delicious berria abian da eduki antolaketa berriarekin

Delicious orri markatzailea abian da berriz ere, itxura berriarekin. Youtube abiatu zutenak arduratu dira etapa berriaz eta izaera "sozialagoa" eman gura izan diote. Nobedadea da gai bati buruzko loturak etiketa bitartez barik stacks delako multzoetan antolatzen direla. Stack-ik popularrak erakusten dituzte orain denbora errealean.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Roman Lopez Rubio
Urriaren 9an, 76 urte.
Zorionak, aita! Benidorren ondo, *morenazo?* Ederto pasatu domekan. Txokomarrubizko muxu asko etxekoen eta bereziki iloba Beñat, Uxue, Maren eta Aurkenen partetik. Patxoak.



ARRASATE
Oier Alonso Perez de Arriucea
Urriaren 9an, urtebete.
Zorionak, potxolo! Urtetxo bat gure mutikotxoak, ederto pasatu egun berezi hau Maeztun eta tartako kandelatxoari fuerte-fuerte putz egin. Etxekoen eta bereziki lehengusu Beñat eta lehengusina Marenen partetik, kilo bat txokomuxu, maitxia!



BERGARA
Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure eguna. Patxo handi-handi bat etxeko guztion partetik.




BERGARA
Jon Larrañaga Marco
Urriaren 6an, 8 urte.
Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik! Ondo pasatu eguna, *guapeton!*



ARETXABALETA
Gari Martin Izurategi
Urriaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, Gari! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Luken, amatxo eta aitaixoren partetik.



BERGARA
Ibai Gallastegi Akizu
Urriaren 5ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat danon partetik.



BERGARA
Jennifer Caballero Garcia
Urriaren 4an, 10 urte. Bi zenbakitara iritsi zara honezkerok! Maite zaitugun guztion eta, batez ere, Liraren partetik, zorionak eta muxu handia!




ARRASATE
Ekhi Arriaran Zubillaga
Urriaren 4an, urtebete.
Zorionak, txikitxo! Oso ondo pasatu zure egunien. Zure txokolatadan egongo gare danok!



ESKORRIATZA
Peio Lizundia Kortazar
Urriaren 4an, urtebete.
Aupa, piratilla! Heldu da zure lehenengo urtebetetze eguna. Zorionak eta patxo potolo bat etxekuen aldetik eta baita besarkada potolo bat aitaixoren partetik.



BERGARA
Jule Agirrebeña Sanchez
Urriaren 4an, urtebete.
Zorionak, sorgintxo! Milaka muxu maite zaitugun guztion partetik.



ARRASATE
Enara Lopez Ormaetxea
Urriaren 3an, 32 urte.
Zorionak, tia Enara! Ederto pasatu eguna, kiloka muxu potolo-potoloak etxekoen eta, bereziki, iloba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, printzesa! Gutxiago gelditzen da! Txan, txan, txatxan, jajajaja.




OÑATI
Ainhoa Igartua Murguzur
Urriaren 3an, 14 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Zure familiaren partetik muxu handi bat. Ondo pasatu jaixetan.



ARRASATE
Aritz Tornay Belategi
Urriaren 2an, 4 urte.
Zorionak eta patxo handi bat gure mutiko handiarentzat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Iker Urtaza Urzelai
Urriaren 2an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat eta oso-oso ondo pasatu zure seigarren urtebetetze egunean. Naroa, amatxo eta aitaix.



ESKORRIATZA
Agurtzane Gainzarain
Urriaren 2an, urtebetetzea.
Asteburuen Garagartzako jaixetan nahikua dantzaldi eindda? Buzkantzak espero dittugu buleguen! Zorionak danon partetik.



BERGARA
Ana Jimenez
Urriaren 1ean, 34 urte.
Zorionak eta patxo handia familia guztiaren partetik.




OÑATI
Amets Bikuña Malbadi
Urriaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun. Jarraitu horrela... gure bizitzako poztazuna izaten. Muxu handi bat etxeko danan partetik.




ARETXABALETA
Manex Beltran de Heredia Altube
Urriaren 1ean, 9 urte.
Zorionak, txapeldun! Aupa Erreal eta aupa UDA! Etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Jokin Larrinaga Aranburu
Irailaren 30ean, 8 urte.
Zorionak, Jokin, zure zortzigarren urtebetetzean! Muxu pila familiako danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.




ARRASATE
Unai Souto Barquero
Irailaren 30ean, urtebete. Zorionak, pirata! Ondo pasatu eguna. Patxo potolo pila Aner, Maren, Leire, Eider, Danel, aitaix, amatxo eta etxeko guztien partetik.



BERGARA
Maitane Muruamendiaraz
Irailaren 30ean, 14 urte.
Zorionak, Maitane! Ondo-ondo pasaizu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat Bartzelona aldetik.



BERGARA
Naia Gabilondo Kapelastegi
Irailaren 29an, 2 urte.
Zorionak, potxola! Patxo potolo bat aitaix, amatxo eta etxeko danen partetik.



ELGETA
Ainara Belamendia Elkoro
Irailaren 29an, 12 urte.
Muxu handi eta eder bat gure printzexia! Ondo pasatu zure urtebetetzea.



ESKORRIATZA
Itziar Mondragon
Irailaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Dantza taldeko martxosienari zure lagunien partetik ondo-ondo pasatu zure berrogeita pikugarren urtebetetzea eta ez ahaztu matitzenean pastak ekartziaz. Eskorriatzako dantza taldea.



OÑATI
Migel Angel Guridi
Irailaren 28an, 53 urte.
Zorionak eta urte askotarako, aitta! Aprobetxatu zeure eguna eta jaixei hasiera ona emun! Patxo handi bat familixa danan partetik!



OÑATI
Naiara Allen Elorza
Irailaren 28an, 2 urte.
Zorionak, guapa, eta muxu pilo bat zure gurasoen partetik!



OÑATI
Maren Arabalozza Abarisketa
Irailaren 27an, 4 urte.
Zorionak eta muxu handi bat Lanzarotetik, politxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna.



ARAMAIO
Eki Balantzategi Fdz. de Arroibe
Irailaren 27an, 8 urte.
Zorionak, maitia! Ez ahaztu sekula: asko, asko, asko gura dotsuagu. Patxo handi bat etxekuen partetik.



OÑATI
June Goenaga Guridi
Irailaren 27an, 11 urte.
Zorionak, prexioxa! Laxtan asko etxeko danon partetik bere-bereziki, zure lehengusuen partetik egun ederra pasa ezazula. Muxuak eta 11 tirakada belarritatik, *guapa!*



DEBAGOIENA
Oinatz Anduaga Estrada
Irailaren 25ean, 4 urte.
Zorionak, Oinatz! Domekan zure urtebetetzea ospatuko dugu. Muxu handi-handi bat aitaix, amatxo eta Nahiren partetik.



ESKORRIATZA
Dorleta Ezeiza
Irailaren 24an, 12 urte.
Zorionak, prexioxa! Espero dou eguna edarto pasetia. Patxo handi-handi bat eta 12 belarri tirakada danon partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkariatza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Eñaut Beitia Maisterrena

Oñati 3,680Kilo. Irailaren 22a. Gurasoak: Nagore eta Xabi. Argazkian, Eñaut amarekin



Deiane Zufiria Azkona

Aramaio 2,950Kilo. Irailaren 23a. Gurasoak: Esti eta Oskar. Argazkian, Oihan anaiarekin



Alai Ruperez Diaz

Bergara 3,340Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Mari eta Rafa. Argazkian, umea sehaskan lo.



Unai Galvez Camacho

Arrasate 3,330Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Rubi eta Ricardo. Argazkian, umea gurasoekin.



Iratz Arenaza Etxebarria

Bergara 3,770Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Amaia eta Iñaki. Argazkian, umea amarekin.



Dilan Escobar Rubio

Bergara 3,860Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Maria Luisa eta Eusebio. Argazkian, umea gurasoekin.



Amaiur Arana Usandizaga

Aretxabaleta 3,030Kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: Ekhi eta Zunbeltz. Argazkian, umea amama Lourdesekin.



Ilargi Bengoa Odriozola

Arrasate 3,160Kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: Nahira eta Iban. Argazkian, umea gurasoekin.



Izadi Corral Rodriguez

Arrasate 3,560Kilo. Irailaren 28a. Gurasoak: Eneida eta Jaime. Argazkian, umea gurasoekin.



Aitana Galiano Duran

Aretxabaleta 3,550Kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: Yolanda eta Sebastian. Argazkian, umea gurasoekin.



Asier Orge Valladares

Bergara 3,270Kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: Susana eta Manuel. Argazkian, umea lotan.



Oihan Ajuria Frades

Abadiño 3,760Kilo. Irailaren 30a. Gurasoak: Maite eta Igor. Argazkian, umea gurasoekin.



Haizea Unamuno Granauillet

Aramaio 3,400Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Marion eta Aitor. Argazkian, umea sehaskan lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32


DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Britainia Handiko hirib. Bazkidea	Aiarakoak	Juduei agindutako lur Arabako udalerria
Dirua	Aurkitua	Animalien presondegi	
Gipuzkoako lurmuturra	Teilatupeko ganbara		
		Emakume izena	
Baleareetako		Arazo eztabaidatu	Nitrogenoa
Ur-kirrol mota			... izan, fidatu
			Omen
... d'Urgell, Lleidan		Da, haiel	
Haragikeri-ak jota dago		Kontsonantea	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

I	O	K	I	G	V	A	H
E	I	V	Z	U	E	S	
N	R	F	U	R	D	N	W
A	N	A	R	A	L	E	B
A	O	R	O	D	I	G	H
N	I	A	I	O	N		
A	O	I	Z	O	S		
K	A						

BILA-BILA 7



Ametsetan behintzat, famatu

Aldizkari eta egunkarietako azalean agertu gura duzula, baina inork ez zaituela ezagutzen? Hona hemen nopsolamendua.
www.nopuedocreer.com



"Atentzioa ematea bakarrik gura nuen. Jendaurrean hitz egitea asko gustatzen zait".

ALESSIO RASTANI | 'TRADER'-A

BBC-ren elkarrizketa baten, ustezko burtsa aditu honek zioen atzeraldi ekonomikoekin amesten duela, horrela diru gehiago irabazteko. Gero jakin da iruzurtia dela, eta ez dela hain aditua. Okerrena da, beste askok benetan pentsatuko dutela hori.
www.telegraph.co.uk



Max. 29°

Min. 13°

Zeru urdinean, eguzkia jaun eta jabe agertuko da eta bero egingo du.
euskalmet.net

goiena

2011-10-03

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

Samuel Sanchez Bizikleta gainean ikusi ohi dugu, baina motorrak eta eskiatzea ere gustatzen zaizkio asturiarrari; askatasuna ematen ei dio abiadurak; galderi erantzuten ere azkarra da. | TXOMIN MADINA

"Bizikleta gainera baino lehenago igo nintzen motorrera"

1. Noiz igo zinen lehen aldiz bizikleta baten gainera?

Bizikletan lehenengo aldia ez; baina gogoratzen dudana da hori baino lehenago motor baten igo nintzela. 3 urterekin izan zen, aitarekin, Asturiasen.

2. Eta zure bi semeak hasi dira pedalei ematen?

Bai, txikiena 3 urterekin gurgil-txo gabe eta guzti ibiltzen da! Gustatzen zaie bizikleta, baina batez ere txikienari; zaharrenari, berriz, beste kontu batzuk gustatzen zaizkio.

3. Zer esango zenioke 18 urterekin etxea utzi eta Bizkaira heldu zen Samuel Sanchez hari?

Ez nioke ezer esango, nik uste dut dena ondo egin zuela, ez naiz ezertaz damutzen. Bueno, akaso, gauza bat bai esango nioke: ez ditzala ikasketak utzi.

4. Pekinen zaude, podiumaren gainean eta urrezko domina soinean. Zer ari da zure burutik pasatzen?

Dena eta ezer ez; biak batera pasatzen dira. Askok oroitzen zara ez daudenez, batez ere amaz; familia duzu buruan.

5. Eta Pekingo edo Luz Ardidengo garaipena gozatu zenuen gehiago?

Ez dakit zer esan, ezberdinak dira. Garaipen bakoitzean momentua bizi duzu; momentu bakoitza era berezian bizi duzu, bakoitzak berea du. Ezin dira elkarrekin alderatu.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Kirola gehiago sustatuko nuke"

Asturiarrak ez du zalantzarik egiten lehendakari izatekotan hartuko lukeen erabakiaren inguruan: "Kirola sustatuko nuke modu superlatiboan. Izan ere, nire ustez, kirola egiten baduzu, bizitza honek ematen ez dizkizun hainbat balio barneratzen dituzu".

6. Irudikatzen duzu zure burua maillot horiarekin Parisen sartzen?

Oso zaila ikusten dut, horrelakotan errealista izan behar da. Ez da ezinezkoa, baina bai zaila.

7. Nola eman buelta txirindularrak azken urteotan hartu duen fama txarrari?

Gure aldetik ahal den guztia egiten ari gara, dopinaren kontra erabiltzen ditugun kontrol sistemak aitzindariak dira. Prentsa, batzuetan, nahiko gaizki portatzen da gurekin; albisteak enfokatzeko modua aldatu egin behar da, kirol arloan zentratu, eta ez kirolez kanpokoetan. Beste kirol batzuetan ere eskandaluak daude, baina ez dira esaten.

8. Noiztik ez zara egon Oviadoko San Mateo jaietan?

Bost urte egon gabe egon ostean, aurten joan naiz. Donostiako edo Bilboko Aste Nagusien antzerakoa da, herrikoia eta ekintza askorekin. Akaso, gehiago da umeendako nagusiendako baino.

9. Zein da zuretzat asturierako hitzik politena?

O, esaldi askori amaieran gehitzen zaiona: "¿Qué pasa, o?". Baita ye hitza ere; eta *guaje*, asturieraz umea esan gura duena.

10. Eta hainbeste urte gurean emanda, ausartu zara euskararekin?

Ulertu ulertzen dut zerbait, baina ikasten ez naiz hasi. Tarteka hiztegiak eta begiratzen ditut... Baina hizkuntza zail samarra da.

ELENA LAKA



Izen horiek

Amaieur izena zatarra eta desaproposa da gauza berriari esateko. Kitto, esan dut.. Ez dela erraza zerbait berriari izena ematea, ume jaioberrien kasuan buruhaustetxoak ere izaten direla, egia da. Moda kontuak ere badirela, Debagoiena osoan ez baititugu topatuko bost emakume 40 urtetik beherakoak Elena izenarekin. Eta Debarroan Elena deituriko azkenetariko neskatilak koskortzen hasi ziren garaian, alderdiak hizkiz izendatzen zirela. Irakasten ziguten alderdien izenak siglez osatutako akronimoak zirela. Guretzako letra zopak besterik ez ziren, siglei esanahi berria ematera jolasten ginen: Para Nosotros Vacaciones. Belaunaldi berrientzako jolasa bestelakoa izan zitekeen: lotu izena garaiari. María Pilar, Elena, Aintzane, Leire, Naroa. Euzko Alderdi Jeltzalea, EIA, Herri Batasuna, Aralar, Amaieur. Guretzako zer den Amaieur: gaztelu baltza, gudari suminak, bildurbako menditarrak, etsaiak, txakur txarrak jan behar daben zalduna, geziak. Ez da moda kontua, da, gudariak, maite den aberri horrengatik borroka, armak, isuritako odolak, Fadrique izenaren garaian ainguratu eta hobe zuketela bertan geratu izan balira

SAN MIGELAK OÑATI 2011

GOENA TELEBISTA | MAGAZINEA
URRIAK 3, 19:45

BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK

